

TOPONIMIA TXIKIA ARAUTZEKO IRIZPIDEAK

*Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri,
Onomastika batzordeko kideak*

0. SARRERA

Lehen-lehenik arlo honetan eskuetarutzen zaigun terminologia arazoaz mintzatu nahi genuke laburki. Izan ere, gure artean toponimiaren normalizazioaz mintzatzeko ohitura dago, maiz toponimiaren normatibizazioaz edo arautzeaz baizik ari ez bagara ere. Egia da, bestalde, bi arlo horiek, normatibizazioa eta normalizazioa, ez daudela zeharo garbiki bereizita, normalizazioa lortzeko normatibizazio edo arautzea baitezpadakoa baita. Alegia, izen bat normaltasun osoz erabil dadin, lehenik izen hori zein eta nolakoa den zehazki eta xeheki jakin beharra dago. Bestela, eta nahiz euskaldunen artean usaiakoa den, izen horrek zerbait eskas duela aitortu beste biderik ez dugu izanen, bi edo hiru aldaera hurbileko baina ez txoil berdin dituenean, esaterako.

Adib.: *Dorrau, Dorrou...* («Dorrao»; *NHI*, 81) Nafarroako toponimia nagusian, *Galardigañeta, Galardagañeta, Galardañeta* txikian (Madotz, *NTEM-XLV*, 161).

Izen bat ongi arautua egoteak ez du esan nahi, alabaina, izen hori normalizaturik dagoenik, hots, gizartean era normalean erabiltzen denik. Honetarako, jakina, beste baldintza batzuk bete behar ditu: ofizialki onartua izatea eta inprimaketan, errepide seinaleetan, kartografian eta abarretan agertzea, herrikoak proposatutakoarekin ados egon eta forma hartaz baliatzea... e.a. Baldintza asko, beraz, gehiegitxo aukeran.

Bigarrenik, garbi utzi nahi dugu txosten honetan toponimia txikia arautzeko azaltzen diren irizpide eta gogoetak ez direla egileoi bat-batean, beste lanik ez izaki eta, buruari eragitearen bortxaz gogoratu zaigun zerbait. Aitzitik, azken urteetan toponimia lanetan buru-belarri ibiltzea izan da mikrotoponimoen arautzea ezinbestekoa dela ikustera eraman gaituena. Honen erakusgarri Nafarroako toponimia txikiaren bilketa egiteko Onomastika batzordeko kide den P. Salaberrik idatzitako irizpide multzoa ikus daiteke,

hein handi batean hemen azalduko denarekin bat heldu dena (in Jimeno Jurío, 1990, 41-67).

Norbaitek galdegin lezake, eta zertarako arautu? Ez al da aski toponimok dauden-daudenean bildu eta ematea? Honen erantzuna agerikoa da: zori-tzarrez ez da nahikoa, gure toki izenak gero ikusiko ditugun hainbat arrazoi-rengatik itxuraldatu egin direlako, euskararen arau fonologikoei jarraikiz (bokal arteko *-n*-ren galera izan daiteke honen lekukorik hoberena) batzuetan, eta arau horiekien zerikusirik ez duten beste zenbait faktorerengatik itxuragabetu besteetan, gure hizkuntza galdu eta toki izenen erabiltzaile diren artzain, igurain, nekazari eta bestek erdara ikasi berrian erabiltzearen poderioz. Gainera, edozein toponimo bilketatan, zeinahi toponimia lanetan, beti aldaera bat hautetsi behar da errealtate bera izendatzen duen aldaera multzoaren izenburutako; hautaketa hau (ia) irizpiderik gabe egin daiteke, lekukorik zaharrena sartuz edo egun bizirik dagoena emanez, edo tarteko forma bat aukeratuz nahi bada, baina garbi dago beti aldaera nagusi bat bereizi behar dela denen ordezkariak.

Gure iritzian, gauzak funtsez egitekotan irizpide batzuk izatea beharrezkoa da, txanda bakoitzean nola jokatu behar den jakiteko. Egia da irizpideak ez direla oro-hartzaileak izaten eta anitzetan aurreikusten ez diren kasu berriak agertzen direla; honek, hala ere, ez du irizpideak ematearen balioa gutxitzen, gure ustean.

Gorago toki izenak itxuraldatzen direla esan dugu, eta horrela da, izan. Itxuraldatze hau toponimo guztiei dagokie, nagusiei bezala txikiei, eta, hemen gehienbat bigarrenaz ariko baldin bagara ere, ezin dugu atzendu harreman eta lotura finko eta sendoak, ezin hautsizkoak, daudela bi multzoen artean, segituan ikusiko dugun bezala. Itxuraldatze hori horrela izenda dezakegu toponimoaren bilakaera euskararen beraren barrenean burutu denean, baina itxuragabetze edo itxuratxartzetzat jo beharko dugu erdarak, Euskal Herriko erderetako batek, bultzaturik eta sustaturik gertatu denean. Ikus dezagun hau polikiago:

a) Itxuragabetze grafikoa

Hau da, errate baterako, Nafarroako *Muruarte de Reta*-ren kasua, ezaguna denez euskarazko *Muru-Artederreta*-ren zatiketa faltsuaren emaitza besterik ez baita (*Muru* gaintxo batean dagoen herrixka da; *Artederreta*, berriz, erdarazko *Carrascal*-en euskarazko izena da, Jimeno Jurfok [1989-b] frogatu zuen bezala). Honen tankerako itxuragabetze grafiko hutsak ardurakoak dira toponimia txikian, *La*-z hasten diren toki izenetan hasierako zati hori erdal artikulutzat hartu eta bereiz ematea, konparaziorako, askotan generoa aldaturik.

Adib.: *Lakumulatu* -> *La Cumulatu* (Uxue), *Larreineta* -> *La Reineta* (Trapagaran), *Lezeguti* -> *La Ciguti* (Galdames), *Olabarrieta* -> *Labarrieta* -> *La Barrieta* (Sopuerta).

Grafikoa izatetik foniko eta morfologikoa izatera igaro daiteke, gaztelaniaren baldintzapenengatik:

Adib.: *La Cumulatu* -> *El Acumulatu* (Uxue); *La Barrieta* -> *Barrietas* (Sopuerta).

Honelakoak askotan benetakoak dira, hots, jendeak erabiliak dira; beste antizetan mapetan baizik bizi ez diren mamu itsusiak dira, besterik ez. Bate-tik besterako pausoa ematea, ordea, ezinezkoa izatetik urruti dago, eta kontuz ibili beharra dago aldioro.

b) Itxuragabetze fonikoa, hizkuntz ordezkapenak eraginda

Hau ere toponimo nagusietan zein txikietan kausitzen dugu, eta gorago esan bezala euskara galtzearen ondorioa izan ohi da.

Adib.: *Miribilla* -> *Miravilla* (Bilbo), *Usunbeltz* (Oibar haraneko herri hustua) -> *Sunbel*.

Maiz herri etimologia egoten da itxuratxartzearen atzean. Izan ere, hiztuna ohitua dago soinua eta esanahia lotzen, eta, horregatik, adierazlearen eta adieraziaren arteko elkartasun hatsarre hori toki izenetara ere eramaten du, usu (gai honetaz ikus Baldinger, 1986 eta Terrado, 1999: 110-114). Adibidez, Nafarroako zenbait herritanazienda xeheei gatz emateko hain ezagunak izan diren gatzarriek ondorengo ugari utzi dituzte toponimian, *Gatzarrieta* eskuarki, baita inoiz horren txikigarria irudi duen *Gatzarriko* ere; azken hau *Cacharricos* bihurtu da Asterainen (Nafarroan; Jimeno Jurío, 1987: 103), pluraleko -s eta guzti, ohikoa denez. Urretxun, berriz, jatorriz *satznamen* edo perpaus-toponimo itxura duen *Beidakar Beibakar* bilakatu da orain, seguru aski *begibakar*-ekin edo agian *behi bakar*-ekin erlazioz delako (Ugarte, 1998: 62).

Era berean, ardantzeekin eta ardogintzarekin zerikusia duen *kapana* izenean oinarritutako *Kapana* toponimoa euskara galtzearekin *Campana* bilakatu da Nafarroako Leatxe herrian, alegia, erdal *campana* 'ezkila, kanpaia'-tzat hartu da (Salaberri, 1994: 531). Lekuko hau ez dago bakarturik; honela dio Jimeno Juríok gai honetaz (1989, 56-57):

“En algunos casos (kapana) ha dado «campana» por asimilación a una voz conocida: **Campana del guarda** (Olleta); **La campana** (Maquirriain, El Pueyo), **Campanita** (Leoz)”.

c) Itxuraldatzea, hots, euskararen barrenean gertatu aldaketa

Anitzetan toponimoaren itxuraldaketa euskara desagertu gabe ere burutzen da, gure hizkuntzan usaiakoak diren zenbait soinu-galtzeren ondorioz. Honetan azentuak eta hizkera azkarrak badukete zerikusia, hots, ahalik eta ekonomia handienaz mintzatu nahi izateak. Hau, ez dugu zalantzan jartzen, hizkuntzaren beraren joeretako bat izango da, baina ezin da ahantzi euskara inoiz ez dela hizkuntza ofiziala izan eta honek eragin handia izan duela toponimoen bilakaeran. Konparaziorako, Malerrekako *Elgorriaga* euskaraz *Elgorria* izatea ez da halabeharrekotua, ondoan dagoen *Ituren* (edo honen aldakiren bat) *Ittun*, *Ittuin* bilakatzea halabeharrekotua ez den era berean (1). Orobat, *Arrigorriaga* > *Arguia* bilakatzea edo *Zeanuri* ([š]-z) *Seani* ebakitzea, neurri handi batean, euskara kultura hizkuntza ez izateak berekin dakarren finkatze ezari eta galga ez izateari dagozkioke.

Ondoan gaztelaniazko izena oro har kontserbatzaileagoa duten toponimo nagusiekin hori gertatu bada, aise ulertzen da toponimo txikien kasuan horrelako bilakaerak biziki ohikoak izatea, hondarreko hauek normalki hizkuntza ofizialeko baliakiderik izaten ez dutelako aldamenen. Ez da harritzekoa, beraz, dokumentazioko *Etxaguen* (Aramai) eta *Etxaran* (Iurreta) azken mendeon edo *Etxan* bilakatzea edo *Arriebakieta Arrakita* edo *Arragita* izatea egun, Azpirotz-Lezaetan (*NTEM-LXV*, 78).

Azken lekuko horretan ikus daitekeen bezala, maiz ebakera desberdinak izaten ditugu orain, itxuraldatzearen ondorioz. Honek ez du esan nahi, alabaina, dokumentazioa, zein arrunki kontserbatzailea baita, alderdi honetatik betibatekoa denik.

Uste izatekoa zen bezala, toponimoa luzeagoa eta aldatzeko aukerak gehiago izaten dira. Honek ez du esan nahi izen laburrek inolako aldakuntzarik izaten ez dutenik, luzeak beti aiseago itxuraldatzen direla baizik. Esaterako, Artaxoako *Enecoargedasco iturria* (XVI. mendea) toponimo eder eta gardena (*Eneko* + *Argedas* + *-ko* + *iturria*) *Necasqui yturria* zen XVII. mendean eta *Kaskiturria* egun (Jimeno Jurío & Salaberri, 1999: 105-106). Kasu honetan norbaitek esan lezake eskribau erdaldunen eskua egon daitekeela aldakuntza honen giblean, eta menturaz horrela dateke, baina erdarazko toponimoekin beste horrenbeste gertatzen da:

A dib.: *Donde murió el mozo* (1786) -> *Muriomozo* (egun; San Martín Unx).

Esperientziak erakusten digu ekonomiaranzko joera hori, toponimo luzeak laburtzekoa, euskaraz indartsu dabilen joera dela; ez dirudi gaztelaniak oso desberdin jokatzen duenik, ezagutzen dugunaren arabera.

(1) *Ittuin*-en kasuan etorkia *Ituren*-ez besteren bat izan liteke.

Honelakoetan uste dugu forma kontserbatzaileen alde egin behar dela, etimologia bidelagun harturik; honen arrazoia gure kultur ondarea atxikitzea besterik ez da. Adibidez, aipatutako *Etxan* eta *Arrakita*, *Arragita* aldaera itxuraldatuetan jatorrizko *Etxaguen*, *Etxaran* eta *Arriebakieta* ilun gertatzen dira, eta, beraz, toponimoaren argitasuna eta gardentasuna galdu direla esan daiteke. Badakigu joera etimologikoa arriskugarri izan daitekeela, mugarik jartzen ez bada. Esan nahi dugu ez dugula uste beti aldaera zaharrena edo etimologikoki gardenena aukeratu behar denik, honek maiz denboran atzeraegi joatea eskatuko digulako. Uste dugu, ordea, aipatu hiru kasu horietan *Etxaguen*, *Etxaran* eta *Arriebakieta* forma osoak hautatuaz aipatu dugun kultur ondarea salburik gelditzen dela, izan daitezkeen aldaera hurbileko baina desberdinak –*Arrakita*, *Arragita*-ren modukoak– saihestu bidenabar.

d) Barne bilakaera

Hemen euskararen arau fonologiko bati jarraikiz gertatu aldakuntzak sarten dira, gure herri eta auzo izenetan ardura kausitzen dugun bokal arteko su-durkariaren galtzea, esaterako.

Adib.: *Aramaiona* > *Aramaio*, *Bakedano* > *Bakedao*, *Otxandiano* > *Otxandio*, *Zestona* > *Zestoa*, *Zurbano* > *Zurbao*.

Puntu honetan garbi esan behar da arau guztiak ez direla maila berekoak, eta kategorizazioa egitea zaila baldin bada ere, toponimia txikia arautzean, handia egitean bezala, euskara batua izan dugula ikusmiran eta, ondorioz, honetan onartzen ez diren euskara herrikoiairen hainbat gertakari toponimia nagusiaren eta txikiaren normalizazioan ere ez ditugula onartu, hizkera anitzetan goiko bokalek eraginda burutzen den *a* > *e* hersketa, esaterako.

Adib.: *Leitze* -> *Leitza* toponimia nagusian; *Garaiko zelaie* -> *Garaiko zelaia*, *Iturgañe* -> *Iturgaña* (Madotz, *NTEM-XLV*, 161)... txikian.

Artikulua eratxikitzean gertatzen diren bokal asimilazio eta disimilazioak ere ezin ditugu ontzat eman, bistan denez.

Adib.: *Arrubii* -> *Arrubia* edo *Arrobia*; *Galtzinlabia* -> *Galtzinlabea*... (Madotz, *NTEM-XLV*, 159, 161).

Era berean, eta kontsonanteen arloan, uste dugu barne bilakaeraren ondorio den zenbait frikariren erortzea ere toponimia txikiaren normalizazioa egi-terakoan ezin dela onetsi, euskara batuan onartzen ez den era berean.

Adib.: *Aano* -> *Arano* toponimia nagusian, *Kaateañe* -> *Karategaña* edo *Garategaña*, kasuen arabera (Madotz, *NTEM-XLV*, 162), *Paitaberri*, *Paitatxiki* -> *Paretaberri*, *Paretatxiki* (Iribas eta Madotz, *NTEM-XLV*, 156 eta 164)... mikrotoponimian.

Toponimia txikiaren arautzea burutzerakoan ezin dugu atzendu Euskal Herriaren egoera, hizkuntzaren aldetik, nabarra dela eta nabarra izan dela beti, dakigunez. Ezaguna den bezala, hiru alderdi bereiz ditzakegu gure herrian, toponimiaren tratamendu oso desberdinak eskatzen dituztenak:

I.–Euskal Herri erromanizatua

Hemen euskararen galera, inoiz mintzo bazen, oso goiztiarra izan zen. Toki-izenak, normalean, latin jatorrikoak izaten dira eta gehienetan ez dute euskara galdu den eremukoek jasandako higadura jasan. Guztiarekin ere, ez da dudarik horietako asko itxuraldatu direla eta hori dela eta arautu beharrean daudela. Nafarroako Erribera, Arabako hegoaldeko alderdi bat eta Bizkai-ko Enkarterriko mendebaldea sartzen dira eremu honetan, batez ere.

II.–Euskaldun izandako Euskal Herria

Euskara galdu den lekuetan, toponimoek ez dute bilakabide normala izan eta itxuragabetu egin dira, hein handi edo txikian, hizkuntza ordezkapenaren eraginez. Hau dateke arautzeko arazo gehien ematen dituen alderdia, biziki egoera desberdinak agertzen direlako, euskararen galtze dataren arabera.

III.–Euskal Herri euskalduna

Euskara bizi den eremuan toponimoak modu naturalagoan bilakatu dira, hizkuntza mintzatuari jarraikiz. Hala eta guztiz ere, maiz itxuraldaketa bortitzak gertatu dira, azentua dela eta beste dela, aski era anarkiko eta halabeharrekoan ardura.

1. IRIZPIDEAK

1.1. Euskal toponimoaren definizioa

Ez da beti erraza zer den euskal toponimoa zehatz esatea, zenbaitetan euskal deituratzat zer ulertu behar den xeheki esatea erraza ez den era berean. Nolanahi ere, gure iritzian garrantzia etorkiari baino gehiago toki izena ibili den hizkuntzari eman behar zaio. Beraz, **euskal toponimotzat edozein jatorritakoa izanik ere euskaraz erabili dena hartuko dugu.**

1.2. Grafia kontuak

Uste dugu nori berea ematea dela zuzenbidea, eta, hortaz, euskal toponimoak euskal grafiaz idatzi behar direla eta erdarazkoak erdal grafiaz. Arestian esan bezala, euskal toponimotzat euskaldunek erabilitako edozein izen joko da, jatorria zein baita ere. Beraz, lehentasuna erabilerak izanen du, ez etorkiak.

Irizpide hau sinplea da itxuraz, baina zenbaitetan zalantzak sor daitezke, toponimo baten etorkia dela eta. Adibidez, *Castillo* aurkitzen badugu garbi dago, aipatu irizpideari jarraikiz, *Castillo* eman behar dugula, ez **Kastillo*, eta *Gazteluzar guibela* edo *Guerecibar* badugu *Gazteluzargibela* (Eslaba, Salaberri, 1994: 242) eta *Gerezibar* (Uritz, *NTEM-XXXII*, 134) idatzi behar ditugula, ez *Gazteluzarguibela* eta *Guerecibar*. Alabaina, dokumentazioan *Castillo Castillu*-rekin aldizkatzen dela ikusten badugu (Uxue, Salaberri, 1994: 823-824), duda egin dezakegu aldaera arautua izateko egokiena zein ote den. Honelakoetan, tokia aipatu II alderdikoa bada (Uxue den bezala), euskara bizirik zegoen garaiko lekukotasunak hartu beharko ditugu gidari, eta aldaera bakoitzaren maiztasuna, espaldikotasuna eta beste gogoan edukirik erabaki.

1.3. Espezifikoa / generikoa bereizketa

Euskal toponimoak arautu nahian ibiltzen garenok maiz «espezifikoa» eta «generikoa» hitzak erabiltzen ditugu, guk baino lehen beste batzuek horrela egin dutelako lehenik, eta balio duen, funtzionatzen duen bereizketa delako gero, nahiz eskuarki ez dugun partiketa horren gaineko teorizaziorik egiten. Alegia, banaketa funtzionala da, eta funtsa baduela somatzen baldin badugu ere, zaila zaigu zertan oinarritzen den xeheki azaltzea.

«Espezifikoa» hitza huts-hutsik azaltzen den toponimoa izendatzeko erabiltzen dugu, *Arrosadia* (Iruñea), *Aranbizkarra* (Gasteiz), *Pagasarri* (Bilbo)... e.a. zegoen bezala utzi edo *toki izena + deklinabide hondarkia + izen arrunta* osaketa duten toponimoetako lehen zatia adierazteko, «toki izen» deitu duguna alegia. Adibidez, Etxalekuko *Altxurko iturria* eta *Ameztiko lezea* toponimoetan bakarrik ere azaltzen diren *Altxur* eta *Amezti* dira espezifikoa (NTEM-XLIV, 133). Generikoa, berriz, espezifikoei lagun eginez agertzen diren izen (gehienetan) arruntak dira, Etxalekuko toponimoen kasuan *iturria* eta *lezea*.

Adibide gehiago: Arrarasko *Alporro* eta Arrasateko *Kobaundi* espezifikotzat jotzen ditugu, eta *erreka* eta *zubia* generikotzat, *Alporroko erreka* (NTEM-XLIV, 36) eta *Kobaundiko zubia* (Arrasate, Ormaetxea, 1996, 140) toponimoetan; era berean, Goizuetako *Gorostin* espezifikoa da bakarrik azaltzen denean eta *Gorostingo zokoa* deizioan (NTEM-XLVII, 96); hondarreko honetako *zokoa*, berriz, generikotzat hartzen dugu. Herri bereko *Ibarrola* espezifikoa da bakarrik erabiltzen denean edo *Ibarrolako borda*, *Ibarrolako erreka*, *Ibarrolako harriaren gaina* eta *Ibarrolako zokoa* deizioetan. Azken hauetako *borda*, *erreka* eta *zokoa*, aldiz, generikoa dira (NTEM-XLVII, 97-98).

Nolanahi ere, *Ibarrolako harriaren gaina* deizioan generikoa zein den ez da zeharo garbi ageri; *Ibarrolako harria* huts-hutsa azalduko balitz arazorik ez genuke, baina *gaina* posposizioa eramateak, jabego genitiboaren hondarkiaren bitartekotzat, gauzak konplikatzeko ditu. Zernahi gisaz guk, grafia dela eta, harriaren gaina segida generikotzat hartuko dugu, eta hizkuntza estandarreko

erregelen arabera idatziko. Izan ere, hau da espezifikoa / generiko bereizketak duen ondorioz larrietakoa: espezifikoak, Euskaltzaindiak Bergarako biltzarrean (1978: 22) erabakitakoari jarraikiz, ez dira zeharo euskara batuan ibiltzen den ortografiarekin idazten; honetan *il*-z eta *in*-z irudikatzen diren zegoen bezala alboko eta sudurkaria, esaterako, *ll* eta *ñ* idazten dira toponimoetan, espezifikoetan, baina *il* eta *in* generikoetan, izen arruntz hartzen baitira.

Adib.: *Abadiño, Iruñea, Olloioen, Oñati, Gereño...*

Orobat, batuan erabiltzen den *h* ez da espezifikoetan ematen, baldin ebaikitzen ez bada, baina bai generikoetan. Hortaz, *Arana* idazten dugu Agezako toponimoa, *Arana* ebakitzen delako (Salaberri, 1994: 98), baina *Harpeko pentzea, Hegiluze* eta *Hegixorrotxa* idazten ditugu Luzaideko toki izenak, hirurak ere aspirazioz ebakitzen direlako (edo ebaki daitezkeelako) (*NTEM-XXXV*, 189-190). Bestalde, Galipentzun *Albozko harana, Garandako harana* eta *Ibarrereko harana* ditugu (Salaberri, 1994: 344, 403, 410), *Alboz, Garanda* eta *Ibarrera* historikoen aldamenean, eta Areson *Gurutzetako hegia* (*NTEM-XLVIII*, 40) arautu da bertakoen ahotan *Gurutzetako egie* dena (*Gurutzeta* ere badago), esan bezala generikoetan euskara batuaren erregelak begiratu ohi direlako.

Traperok dio (1995: 50-51) «espezifikoa» eta «generikoa»-ren artekoa ez dagokiola bi izen mota izateari, bi izenen artean finkatzen den erlazio semantikoari baizik. Autore honen arabera bakarka definitzen diren beste izen kategorien aldean, izen bat generikotzat edo espezifikotzat hartzeko kontrajarritako bi terminoak behar dira, bereizketa semantikan oinarritzen baita zeharo.

Gure irudiko Traperok dioenak ez du balio erabat euskararendako, besteak beste bakarrik dauden izenak espezifikotzat jotzen ez dituelako, gure artean halakotzat aitortzen diren bitartean, idatziz emateko orduan bederen (cf. Euskaltzaindiaren Bergarako biltzarrearen esandakoa).

Aipatu ikertzailearen arabera *Teror de Arriba* deizioan *Teror* generikoa litzateke, eta *Barranco de Teror*-en, berriz, espezifikoa. Euskaraz Etxarri-Aranazko *Behoko basoa*-ko *basoa* osagaia eta Uharte-Arakilgo *Goieneko harrate, Goiko larrainak* eta *Goiko legarra*-ko *harrate, larrainak* eta *legarra* izenak generikotzat har daitezkeela uste dugu (*NTEM-XII*, 39, 143), eta berdin Doneztebeko *Behetiko iratzelaia* eta *Goiko iratzelaia*-ko *iratzelaia* (Iñigo, 1996: 106, 12), eta horregatik idazten ditugu hemen azaltzen diren moduan. Bestalde, berez generikoa denak atzizkiren bat badarama uste dugu, normalean bederen, generikotasuna erabat galtzen duela eta espezifikotzat erabili eta idatzi behar dela. Hau da, esate baterako, Arbizuko *Behoko Larrañeta* eta *Goiko Larrañeta* toponimoetako *Larrañeta* osagaiaren kasua, etorkiz, aitortu beharra dago, apelatibo hutsa baldin bazen ere. Oraingoan, beraz, *Bekolarrañeta* eta *Goikolarrañeta* arautu beharra dagoela uste dugu.

Uharte-Arakilgo *Lehendabiziko pulpitu*a eta *Bigarren pulpitu*a deizioetako *pulpitu*a generikotzat eman beharra da gure iritziz (cf. *Arregiko pulpitu*

[*NTEM-XII*, 130, 135 eta 152]], baina ez herri bereko (ibid., 160) eta Ezkurako *Pulpitu*. Oraingoan grafia arazorik ez egon arren, beste batzuetan badi-ra horrelakoak, aurreko paragrafoan ikusi bezala.

Ados gaude Traperorekin Kanariasko *Polígono de la Cruz de Piedra* toponimoan *piedra* ez dela *polígono*-ren espezifikoa dioenean, euskaraz ere Zozaiaiko *Harrizko gurutze* toponimoan (*NTEM-LII-2*, 210) *Harrizko* osagaia *gurutzea*-ren espezifikoa ez den bezala.

Espezifiko / generiko partiketaz ari beharrean *Spore* (1980: 11-12) izen berezia / izen arrunta bereizketaz mintzo da, toponimia frantsesa aztertzerakoan, baina iristen duen ondorioarekin gu ez gaude ados, eta ez dugu uste euskal toponimiaren arautzeko azterketa egokia denik. Ikertzaile honen arabera izen arruntzat edozein toponimo hartu behar da, baldin eta hiztegian azaltzen bada, baina gero aldakuntzak egitera behartua ikusten du bere burua, batez ere epitotoak besarkatzeko.

Euskaraz zenbaitetan *espezifikoa + deklinabide hondarkia + generikoa + toponimia atzizkia* segida dugu; honelakoetan dena batera idaztea gomendatzen da, atzizki toponimikoa azaltzea generikoa espezifikoa bilakatu delako seinala baita, gure irudiko.

Adib.: *Apezarensoroburueta*, ez *Apezaren soroburueta* (Arbizu, *NTEM-XII*, 65), baina *Altzanburuko lizarretako zokoa*, ez *Altzanburukolizarretako zokoa* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 57), hondarreko toponimo honetan *lizarretako* hori deklinatutako izen arrunta besterik ez delako.

Batzuetan toponimia atzizkia duen osagaia, bitxia badirudi ere, generikotzat hartua izan dela ikusten da; generikotzat hartua egote hori txandakatzean, beste generiko batekilako aldizkatzean ikusten da hobekiena.

Adib.: *Alduntzinmendiko harxurieta* (*Alduntzinmendi* eta *Alduntzinmendiko bidea* ere badira), ez *Alduntzinmendikoarxurieta* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 55), *Amigoneko buztinzuloeta* (*Amigonea* etxe izena da, Lesaka, *NTEM-IL*, 200), *Apezaren berroko gatzarrieta* (*Apezaren berro* eta *Apezaren berroko kaskoa* ere ibiltzen dira, Garralda, *NTEM-XXXIV*, 149-150).

1.3.1. Deklinabide hondarkia duen aldaera vs. horrelakorik ez duena, edo osagaiak batera vs. bereiz ematea

Leku genitiboaren orde z jabe genitiboa duten toponimoetan ere ezin esan daiteke lehen zatia espezifikoa denik, eta bigarrena generikoa.

Adib.: *Etxarriren partzela* (Areso; *NTEM-XLVIII*, 38), *Juanitoren soro haundia* (Urdiain; *NTEM-X*, 99), *Sorginen euntzea* (Leatxe; Salaberri, 1994: 564).

Jabego genitiboaren hondarkia duten toponimo hauen osagaiak bereiz idatzi behar direla irudi du, tartean deklinabide hondarkia dagoelako (*Madozko apezaren xenda*; Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 154). Atzizkia eguneroko hizkeraren ildotik laburtua kausitzen badugu atzera eginen dugu, eta osorik idatziko: *Apezan arria*, *Apezan gurutzea* -> *Apezaren harria*, *Apezaren gurutzea* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 60-61). Atzizkia beti laburtua aurkitzen badugu, aspaldianik, badirudi loturik idazteko eskubidea badugula.

Adib.: *Petringesala* (Uxue; Salaberri, 1994: 860).

Beste deklinabide hondarkiren bat azaltzen denean ere, hau zein ere den, toponimoaren osagaiak bereiz idatziko ditugu.

Adib.: *Mutiloara bidea* (Iruñea; Jimeno Jurío & Salaberri, 1994: 115); *Olatza bidea* (*Olaçabidea* "Olatza doan bidea", Badostain, 1616; Pr-Auritz, 2. k., 4); *Bustazuriko erre kara bidea* (Asterain, 1683, Jimeno Jurío, 1986: 67(2)).

Tartean deklinabide hondarik ez bada, osagaiak lotuta idatziko ditugu, leku izen horren egitura eta osatzen duten elementuen izaera zein ere baitira. Beraz, berdin jokatu da *izena + izena* duten egituretan, *izen + izenondoa* dutenetan... eta abarretan. Osagai kopuruak ez du honetan, hortaz, ikuskizunik.

Adib.: *Altziturrieta*, *Altziturrietatxiki* (Etxarri-Aranatz, *NTEM-XII*, 33), *Errekagorri*, *Errekagorribideazpia* (Urretxu, Ugarte, 1998: 82-83), *Gazteluiturri* (Abadiño), *Iguzkiagirregaña* (Adana, Araba), *Oianguren*, *Oiangurentxialdea* (Zumarraga, Ugarte, 1998: 383), *Pagoleorragaburu* (Munitibar), *Zubietagañekoa* (Aramaio), ...

Puntu honetan bereziki aipagarriak dira mendebaldeko etxe izenak, maiz auzo izena ere barruan dutenak. Horrelakoak ere elkaturik emango dira, tartean atzizkirik agertzen ez bada: *Barinagaerrementeria* (Markina-Xemein), *Garaitaurtenengoa* (Zornotza), *Uribetxebarria* (Aretxabaleta)... e.a.

Zenbaitetan toponimo bera, batean deklinabide hondarkiaz horniturik aurkituko dugu eta hurrengoan gabe; idazkerak ere formaren araberakoa izan beharko du.

Adib.: *Indusigibel*, *Indusigibeleko pausua* eta *Indusigibelpausua*; *Iturrotz*, *Iturrotzaldapa* eta *Iturrozko aldapa*; *Txutxu*, *Txutxuberokia* eta *Txutxuko berokia*, denak Lergan (Salaberri, 1994: 616-617, 620-621 eta 653-654), *Mugitz* - *Mugiz*, *Mugizko azpia* eta *Mugitzazpia* (Doneztebe, Iñigo, 1996: 136).

Aldaki bakarra hautatu beharrean gertatuz gero, zuzeneko lotura duena hautatuko dugu, normalean laburragoa delako eta arautzeko orduan zailtasun

(2) C-rekin izkiriaturik ageri da, jakina.

gutxiago izaten dituelako. Hortaz, *Indusigibelpausua, Iturrotzaldapa, Txutxuberokia, Mugitzazpia...*

1.3.2. Tokian tokiko hizkeraren ezaugarriak noraino sartu generikoetan?

Generikoak izen arruntak direla esan dugu, baina lekuan lekuko ezaugarri bereziek toponimoen arautzean izan behar duten tokiaz mintzatzen garenean ikusiko dugun bezala, zenbait aldiz aparteko tratamendua behar dute, euskara estandarretik urruntzen dena. Hau ez da beti erraz zehazten, aldaeren artekoa metroka edo kiloka neurtzen ez delako.

Nolanahi ere, uste dugu gure literaturan tradizio handi samarra duten formak sartu behar direla, bai eta ere bestelako arrazoiren batengatik (dialektologian duten pisuagatik, gertakari fonetiko-fonologiko, morfologiko... garrantzizkoren bat islatzen dutelako...) bereziak diren aldaerak: *gaztulu* eta *uturri* Erronkari aldean, *atxa* eta *gana* mendebaldeko hizkeretan, *sario* Nafarroako alderdi zabal batean, *-a + a*-ren disimilaziotik ateratako *-ea*-dun formak (*errekea*-ren tankerakoak; ez, ordea, *errekea*, *errekie...* e.a.) Euskal Herriko erdialde-mendebaldean; *-a + a*-ren batuketatik atera den *-ara* (*errekara* 'erreak'-ren modukoak) Zaraitzun, *xilo* edo *zilo* ekialdean... e.a.

Generikoak, oro har, euskara batuan eman behar direla uste dugu, baina esan bezala tokian tokiko aldaerak ere onartu behar dira, aski sustraiturik eta erabiliak badira.

Puntu honetan bi eratako generikoak bereizi behar ditugu:

1.- Beti izenarekin agertzen direnak, nolabait izenaren osagai direnak, leku izen baten gainean eraikitako aldakiak sarri: *Kosinengo xilo*, *Koxinengo borda* Luzaiden, esaterako (*NTEM-XXXV*, 196).

2.- Hautazko dei genitzakeenak: *Atxuri haitza*, *Etxebarria baserria*, *Ibail zabal ibaia*, etab.

Lehenengo saileko generikoetan lekuan lekuko ezaugarriak hobeki gorde daitezke, betiere egungo ebakera laburtu edo herrikoiegiak saihesten direla.

Bigarren saileko generikoak mapen argitasunagatik edo bestelako arrazoiren batengatik eman behar badira batuan emango dira, baldin eta barne koherentzia apurtzen ez bada, ez baitirudi oso egokia denik *atxa*, *errekea*, *gana* agertzen den inguru batean *haitza*, *erreka*, *gaina* ere agertzea, konparaziorako, bertako aldizkatzea ez bada bederen.

1.3.3. Artikulurik gabe azaltzen zaizkigun generikoak

Ohikoena ez badira ere, maiz artikulurik gabeko generikoa duten toponimoak aurkitzen ditugu han-hemenka:

Adib: *Atazar*, *Atazarko gurutze* (eta *Atazarko portua*, Arruazu; *NTEM-XII*, 109), *Boñiz* eta *Boñizko zulo* (Uharte-Arakil; *NTEM-XII*, 136); *Iramendi* eta *Iramendiko kasko*; *Koskarte*, *Koskarteko beroki*, *Koskarteko bizkar*, *Koskarteko lepo* eta *Koskarteko ospel* (Zilbeti, *NTEM-XXXV*, 153-155).

Honelakoak bereiz ematen ditugu arruntean; alabaina, izan daiteke inoiz salbuespenen bat, ohituraz batentzat hartzen eta idazten den toponimoren bat, bereziki espezifikoa beste generiko batez lagundurik kausitzen ez dugunean. Hauek, halere, eta esan bezala, salbuespenak dira. Etxe izenak ere salbuespentzat hartu behar dira, hauen osagaiak eskuarki batera idazten direlako (*Goi-koetxea*, konparaziorako); honetaz ikus beherago dioguna.

1.3.4. Artikuluz hornitutako toponimoak

Gorago esan bezala, izena bakarrik azaltzen denean guk espezifikotzat jotzen dugu; esaterako, gorago aipatutako Agezako *Arana* bere horretan idazten dugu, *h*-rik gabe, Nafarroako herri horretan, guk dakigula, ez baitzen aspiraziorik euskaraz mintzatzen zen azken garaian. Beraz, *Arana* hori espezifikotzat jotzen dugu, baina honek ez du esan nahi izen ihartu eta ezin mugituzkotzat eman behar dugunik, dokumentazioak eta egungo erabilerak erakusten digutenez, hau ez baitzen horrela. Esan nahi duguna da *Arana* agertu arren herri berean *Araneko erreka* ere badugula, nahiz gero ihartzeak ere ez diren hain bitxiak (*Aranako erreka*-en tankerakoez ari gara) (Salaberri, 1994: 98-99).

Horregatik, uste dugu artikuludun espezifikoak oro har *-a*-tzat hartu behar ditugula, hau da, toponimia nagusian *Bizkaia* *-a* deklinatzen den moduan deklinatu behar direla. Izan ere, *Bizkaia* *-a* ezartzen dugunean esan nahi dugu bukaerako *-a* hori artikulua dela, eta deklinatzerakoan *begia* edo *etxea*-ren eredu erabili behar dela, hots, *Bizkaia*, *Bizkaiak*, *Bizkaiari* baina *Bizkaiko*, *Bizkaitik* eta *Bizkaira* esan eta idatzi behar dela. Hortaz, *Arana* edo *Bizkarra*-ren modukoek ere *-a* izan behar dutela uste dugu, eta *Araneko*, *Aranera*, *Aranetik*, *Bizkarrean*, *Bizkarretik*, *Bizkarrera* deklinatu behar direla, beharra dagoenean. Ildo beretik, Iruñeko *Arrosadia* izena *Arrosadiko*, *Arrosadira*, *Arrosaditik* deklinatuko da, eta Gasteizko *Aranbizkarra* *Aranbizkarrean*, *Aranbizkarretik*, *Aranbizkarrera*... e.a.

Badira, alabaina, ihartuta finkatu direlako arau hau begiratzen ez duten toponimoak, euskara oraino bizirik dagoen alderdi zabalean. Honelakoetan, jakina, lekuan lekuko erabilerari erreparatu behar zaio eta hura ontzat hartu. Esaterako, hor dugu orain *-a* berezkoa duen Mutrikuko *Astigarribia* auzo izena, nahiz jatorriz, bistan denez, *-a* hori artikulua besterik ez zen, jantzi-erantzikoa beraz. Euskara galdu berria den alderdiko adibidea Altsasuko *Bazterrotzako haitza* izan daiteke (*NTEM-IX*, 38).

1.3.5. Ozenez bukatzen diren toponimoetan deklinabide hondarkiareki-ko lotura nola egin

Toponimoa ozenez bukatzen denean (-n eta -l-z eskuarki, -r-z ere bai, zenbaitetan) maiz arazoa izaten da aldaera arautuan leku genitiboaren hondarkiak nolako itxura izan behar duen espezifikoa eta generikoa arteko lotura egitean, egungo hizkera bizian maiz sinkopak eta laburketak gertatzen baitira. Askotan arazorik ez dago, eta dagoena onetsi besterik ez da egin behar.

Adib.: *Aitzabalgo treguarria*; *Aralarko San Migel* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 123, 127); *Ontsarango bidea*; *Otermingo itxitua*; *Otsolizarreko Zezelaingo soroa*; *Ubango erreka* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 83, 84, 86).

Beste batzuetan, albokoaren atzean bereziki, -ko dugu, ez -go, hizkera arruntean *hilko dira* dugun bezala, *hilgo dira*-ren partez:

Adib.: *Baratzail* eta *Baratzailko ataka* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 75); *Berrazar* eta *Berrazarko erreka* (Ituren, Iñigo, 1996: 239).

Aldi eta alde orotarako balio duen irizpidea ematea ez da erraza oraingoan, baina esan dezakegu *Zabaleko* / *Zabalgo* / *Zabalko* + generikoa-ren tankerako segidak ditugunean lehen biak izaten direla zaharrenak (*Zabala* -> *Zabaleko*, *Zabal* -> *Zabalgo*) eta hirugarrena berriena. Hortaz, ahal delarik, lehen bietako baten alde egin behar dela uste dugu.

Nolanahi ere, dokumentaziorik ez denean dagoena onartu beharko da. Adib.: *Iturritzar* eta *Iturritxarko aska*, *Iturritxarko erreka* (Leitza, *NTEM-XLVIII*, 95).

1.3.6. Txistukari afrikariz bukatzen diren toponimoak

Txistukari afrikariz (-tz eta -ts-z arruntean) amaitzen diren espezifikoei leku genitiboaren hondarkia maiz zuzenean eransten zaie, hau da, *Oskotz* eta *Oskozko* esaten da, ez *Oskotzeko*. Honelakoetan euskaraz ohikoena, adibidean ikusten den bezala, afrikaria frikari bilakatzea da (cf. *Alaitz* eta *Alaizko iturria*, Uharte-Arakilen, *NTEM-XII*, 124-125, *Ostokaitz* eta *Ostokaizko etxeazpia* Gaintzan, *NTEM-XLVI*, 83); joera hau zaharra da eta dokumentazioa kontra mintzo ez bada ontzat hartu behar dela uste dugu.

Badira, halaber, ondoan herskari ahoskabea izanagatik afrikaria atxikitzen duten toponimoak.

Adib.: *Okorraitz* eta *Okorraitzko kaskoa*; *Sollatsko kalparra* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 83).

Gauza bera edo antzekoa gerta daiteke hitz barruan.

Adib.: *Aitzpuntaxorrotx* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 124), *Auritzmuga* (Garralda, *NTEM-XXXIV*, 152), *Beatzmearreta* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 75).

Honelakoetan ere uste dugu segida bizi horiek ontzat eman behar direla, betiere espezifikoa agertzen badira. Inoiz gerta daiteke egun bi ebakerak izatea; honelakoetan bat hautatuko da, dokumentazioa aintzat harturik. Adibidez, Iñigok (Doneztebe, 1996: 96) *Aritzmendi* arautu du *Aritzmendi / Arizmendi* erraten dena.

Zenbaitetan herri hizkeran lotura bokala galdu da, eta irudi luke toponimoa arautzean bokal hori atzera ekarri behar dela. Adibidez, Uharte-Arakilgo *Posterokuaitz*, *Posterokuaitz* toponimoa *Posteroko haitz* arautu beharra dago, eta honen eratorria den *Posterokuaitzko lezie* izena *Posteroko haitzeko lezea* eman behar da, ez **Posteroko haizko lezea* (NTEM-XII, 160). Arazoa izaten da honelakoetan toponimoak erabiliaren erabiliaz ihartu egiten direla eta hasierako motibazioa galtzen dutela edo, behintzat, motibazio hori ilunduta gelditzen dela.

1.3.7. Mailegu berriak vs. hizkuntza estandarrean onartzen diren izenak, generikoetan

Maiz ikusten dugu garai batean ardurakoak ziren generikoak, Hegoaldean gaztelaniaren eraginez, gero eta baztertuago daudela, eta izen jatorren ordez usu tradizio handirik ez duten maileguak hartzen direla. Esaterako, gureak diren *altxonbidea*, *etxola*, *gaina*, *harrobia*, *idoia*, *koba*, *soila*... eta besteren ordainetan *kañada*, *txabola*, *altua*, *kantera*, *baltsa*, *kueba*, *rasua* eta abar aurkitzen ditugu generikotzat egungo toponimia bizian. Honelako kasuetan uste dugu azken orduko berrikeriak baztertzekoak direla –eman dugun zerrendatxoan izen guztiak ez dira maila berekoak– eta horien partez gure artean tradizio handiagoa duten generikoak hobetsi behar direla, ahal denean Euskaltzaindiaren hiztegi batua gida harturik.

Zalantzazko kasua Aezkoan erabiltzen den *peina* mailegua izan daiteke, hau bertako hizkeran ongi errotua baitago, nozitu duen despalatalizatze bilakaerak argi adierazten duen moduan; Nafarroako toponimia bilketan *Arrigorriko peina* arautu zen *Arrigorriko peina* esaten dena. Antzekoa da *Urdiaingo Azpiko maiztia* (NTEM-X, 87), generikoa herrian errotutako hitza dela irudi baitu.

Hiztegi batuaren gida euskaraz aldaera asko dituen generikoa aurkitzen dugunean ere behar-beharrezkoa zaigu. Hau, da, adibidez, *mospela*, *nospela*, *ospela*, *suspela*, *uzpela*... itxurez kausitzen dugun izenaren kasua. Hemen hiztegi batuan ageri den *ospela* hobetsiko dugu generikotzat. Nolanahi ere, zenbait tokitan gogorra izan daiteke aurreko paragrafoan ematen diren generikoetako batzuk onartzea, arrazoi dialektalak direla bide, esaterako; horrelakoetan egokiena mailegua atxikitzea dela uste dugu.

Adib.: *Artiako txabolie* -> *Arteagako txabolea* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 111).

Beste arazo bat orain arte euskaraz ibili ez diren generikoei dagokiena da, *depósito*, *pista forestal* eta abarren modukoei, hain zuzen ere. Kasu hone-tan *ur-biltegi*, *basabide* edo *mendi-bide*.. e.a. hobetsi ziren Nafarroako topo-nimiaren arautzea egitean, eta uste dugu orain ere berdin jokatu behar dela. Zer esanik ez, euskarazko izen zaharra erdarazko berriagoaren aldamenean aurkitzen dugunean lehen hori hobetsiko dugu, joera gure artean euskal gene-rikoak baztertu eta erdarazkoak nagusitzea izan baita.

Adib.: *Arrizurragako arrobia* / *La Cantera* -> *Arrizurragako harrobia* (Doneztebe, Iñigo, 1996: 99).

Azkenik, erdarazko *río*-ren euskarazko ordainaz hitz pareta esan nahi dugu. Kontzeptu hori adierazteko hizkuntza estandarreko *ibai* erabil daiteke ubiderik garrantzizkoenak adierazi nahi direnean: *Deba ibaia*, *Urumea ibaia*... Gainerakoetan tokian tokiko usadio eta azturak errespetatu daitezkeela uste dugu: *erreka*, *ugaldea*..., aldaera herriko berrien ordainez jatorrizko formak sartuz (*ugaldea*, ez *ubaldia*, *ubeldia*, *gualdia* adibidez) eta gogor egiten diren maileguak baztertuz (*irrioa*-ren modukoak; ikus gorago dioguna, atal hone-tan).

Ubidez mintzatzerakoan *erreka*-k arazoa sortzen du edo sor dezake: nola idatzi behar dugu, oinarriari loturik ala *ibaia*-rekin egiten den bezala bereizir-rik? Hemen uste dugu irizpide finko zurrunik ematerik ez dagoela, eta kasu bakoitzean ikusi behar dela. Zernahi gisaz, *aurkintza izena* + *erreka* denean bi osagaiok loturik eman badaitezke ere, ezin gauza bera egingo dugu ubide-aren izena aurkintza izena ez denean. Adibidez, *Ezkurra ugaldea* arautuko dugu Elgorriagan (Iñigo, 1996: 181), *Ezkurra* herri izena bai baina Elgorria-gako dermio izena ez delako.

Beste batzuetan leku genitiboaren hondarkia da zuzeneko lotura galaraz-ten diguna.

Adib.: *Gangara* / *Gangarako erreka* (Elgorriaga, Iñigo, 1996: 181); *Txa-parloa* / *Txaparloako erreka* (Abaurregaina, NTEM-XXXIV, 51).

1.3.8. Generikoa konposatua denean

Maiz generikoa hitz bakar batez osaturik egon beharrean biz edo gehia-goz osaturik egoten da.

Adib.: *Araneko berroandia* (Garralda, NTEM-XXXV, 150), *Araneko be-lagittiki* (Bertiz); *Sarabeko bidezarra* (Urdiain, NTEM-X, 107).

Honelakoetan uste dugu generikoa izen gehi izenondoz osaturik badago bi hitzetan eman behar dela, honela: *Araneko berro handia*, *Araneko belagi ttiki*, *Sarabeko bide zaharra*.

Bukaeran nolabaiteko ihartzea gertatu dela adierazten duen elementuren bat badago, badirudi dena batean idaztea dela zuhurrena. Esaterako, aipatu dugun Garraldako *Araneko berro handia*-rekin “pendant” egiten duen *Araneko berrotzikinea* badirudi horrela idatzi behar dela, amaierako *-ea* horrek toponimoak nolabaiteko lexikalizazio maila iritsi duela adierazten baitigu. Antzeko kasua da Abaurregaineko *Etxeberriko bordaxarrak* (NTEM-XXXIV, 41), zein bere horretan eman behar dugula irudi baitu. Kontuan hartu behar da hemen *xarra* dugula, ez batuko *zaharra*, eta erdaraz *Bordaxarres de Etxeberri* esaten dela.

Osagaiak izen generikoa eta posposizioa badira, ordea, uste dugu gehienetan biak batean eman behar ditugula, izen elkartzat.

Adib.: *Araneko xiloaldea* (Hiriberri-Aezkoa, NTEM-XXXIV, 176); *Arburuko bordagaina* (eta *Arburuko borda*, *Arburuko erreka*, *Arburuko zelaia*, Donztebe, Iñigo, 1996: 95-96).

1.3.9. Bokal txandakatzea

Zenbaitetan, espezifikoetan bereziki, izen beraren bi aldaera aurkitzen ditugu, bat apofonia deitu ohi dena aurkezten duena, eta bestea horrelakorik ez duena. Euskara bizi den herrietan uste dugu egun ibiltzen den forma hautatu behar dela, eta toponimoa desagertua denean maiztasunik handiena duen aldaera hobetsi behar dela. Bigarren kasu honetan apofonia jasandako aldaera aukeratu behar dela uste dugu, biek pisu bera edo antzekoa badute.

Adib.: *Bidapea / Bidepea* -> *Bidapea*; *Usadorrea / Usodorrea* -> *Usadorrea*.

Nolanahi ere, eta beti bezala, dokumentazioa aztertu behar da, honen emana erabakigarria izan baitaiteke.

1.3.10. Elkarketako aldaerak

Askotan toponimo berak bi aldaera hurbileko baina ez zeharo berdinak aurkeztu ohi ditu dokumentazioan, hauetako batek oinarriztat izen osoa duelarik eta besteak, berriz, izen horren elkarketako aldaera.

Adib.: *Iturberri* (egun) / *Iturriberrri* (1943an) Ziordian (NTEM-IX, 97), *Itturberri* (orain), *Iturriberrri* (1728), *Yturriberrri* (1795) Arantzan (NTEM-IL, 48).

Gure irudiko, euskara bizirik den lekuetan egungo aldaera hautatu beharra da, dokumentuetan aldizkatzea izan arren. Beraz, *Iturberri* arautuko ditugu Ziordiko eta Arantzako toponimoak. Bi aldaerak egun bizirik dauden kasuetan uste dugu, bat aukeratu behar eta, elkarketako aldaera aurkezten duena hautatu behar dela.

Adib.: *Arnabarreta / Arrinabarreta* -> *Arnabarreta* (Garaioa, *NTEM-XX-IV*, 129), *Iturraldea / Iturrialdea* -> *Iturraldea* (Aribe, *ibid.*, 116), *Iturrioz / Iturroz* -> *Iturrotz* (Garaioa, *ibid.*, 137).

Honelakoetan dokumentazioa kontuan edukitzea biziki garrantzikoa da, zeren, adibidez, agirietan beti *iturri-* badugu eta orain *Iturri-* eta *Itur-* batera, *Iturri-* hautetsi beharko baitugu, ez *Itur-*.

Toponimoa desagertu bada eta hala ere arautu behar badugu, badirudi zuhurrena dokumentazioan ohikoena den aldakia hautatea dela.

1.4. Aldaera osoak eta aldaera laburtuak; errestituzioak egin beharra

Gai interesgarri baina irristakor honetaz mintzatzean sarreran esandakoa az oroitu behar dugu, alegia, itxuragabetzea, itxuraldatzea eta barne bilakaera gertakari desberdinak direla eta ezin dela hiru kasuotan berdin joka.

Itxuragabetze edo itxuragaiztotzea euskara galdu eta erdara nagusitzearen ondorio denean toponimoa bere onera ekarri behar dela uste dugu. Hemen arazoa da "bere onera ekartze"-tzat zer ulertzen den zehaztea, ezin baitugu, jakina, XII edo XIII. mendeetako aldaera dokumentalera itzuli. Honelakoetan ikusi behar da arautzea egiten ari garen herrian euskara noiz edo noiztsu galdu zen, eta horren arabera erabaki, ez baita berdin, esaterako, Zaraitzuko toponimia arautzea edo Galipentzukoa, Nafarroako adibidea paratzeagatik. Esan nahi dugu hondarreko herrirako XVII. mendeko lekukoek eta XVIII.ekoaren hasmentakoek garrantzi berezia dutela, badakigulako euskara bertan azken mende horren lehen erdian galdu zela. Zaraitzun, berriz, mende hartako lekukotasunak kontuan eduki behar direla dudarik ez dago, baina erabakigarriagoak izan behar dute XX.ekoek, euskara Pirinioetako ibar horretan XX. mendean galdu delako.

Adibidez, Galipentzuko oraingo *Birbiría* ezin dugu dagoen-dagoenean onartu; 1793ko *Bibiguerria* eta 1795eko *Biriverri* ere ezin dira onetsi gure us-tean, baina bai 1723ko *Bideberria* (Salaberri, 1994: 369).

Beste alde batetik, errestituzioa egiterakoan gogoan hartu behar da etorkizko aldaeraren eta egungo aldaeraren arteko aldea handiegia izan daitekeela (cf. aipatu dugun Artaxoako *Enekoargedasko iturria* -> *Kaskiturria*). Hemen ere ezin da balio orokorreko irizpiderik eman, eta kasu bakoitzean ikusi beharko da noraino irits daitekeen, kontuan edukiz beti ere aukeratzeko den aldaera euskaldunok euskaraz mintzatzen ginenean sortutako forma izan behar duela, II. eremuan, hots, euskaldun izanikako Euskal Herrian. Gogoan hartu behar da, orobat, arautzea egiteko ditugun aukerak; adibidez, Lergako *Takurrika*-ren kasuan badirudi *Urretako erreka* finkatzea dela aukera ia bakarra (Salaberri, 1994: 656), eta Arrasateko *Bioso*-ren kasuan ere antzera, Ormaetxeak (1996: 91) egin zuen bezala *Bidasoro* baizik ezin baita eman.

Bidasoro bakarrik eman daitekeela diogu, baina beharbada norbaitek pentsatuko du *Bioso* arautzea ere zilegi dela, edo herri bereko, Arrasateko, *Jai-berri* dagoen-dagoenean eman daitekeela, *Jauregiberri*-ra itzuli gabe (Ormaetxea, 1996:135-136). Guk ez dugu horrela uste. Izan ere, gure toki izenetan belaunaldiz belaunaldi igaro den kultura ondarea dago, guk gorde behar duguna, azken orduko berrikeriak onartu gabe. Adibidez, ez dugu uste Arabako Arluzea herriko *La Ostia* bere horretan uztea egokia denik; honen ordainez dokumentazioko *Elxaostea* eman beharko dugu, bistan denez. Honek etxe izenetarako ere balio du, zeren, nork onartuko luke oraingo *Seronia* aldakia tradizio osoko *Serorenea*-ren partez (Ituren, Iñigo, 1996: 543)? Guk ez (ikus beharago oikonimoei eskainitako atalean gai honetaz dioguna).

Errestituzioak garbiak direnean bakarrik egin behar dira, hots, aukeratzen den aldaera dokumentatua dagoenean, ahal delarik ongi dokumentatua dagoenean. Nolanahi ere, euskara oraindik bizirik dagoen alderdian maiz agiritan azaltzen ez diren aldaerak kausitzen ditugu; honelakoetan burututako laburtzea anitzetan bistakoa da, partikulazki tartean atzizki baten laburtzea dagoenean, *Artia*, *Elorrixa* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 90) eta *lizarta* (*Altzanburuko lizartako txokoa*, Goizueta, *NTEM-XLVII*, 57) toponimoetan esaterako, zein *Arteaga*, *Elorriaga* eta *lizarreta* arautzeko ez baitugu herabe izan behar.

Beste askotan txistukarien tratamenduan egoten da koxka; honelako kasuetan atzizki ezaguna bada afrikaria emateko beldur handiegirik ez dugu izan behar, beti ere inguruan bestela jokatu dela dioen daturik ez badago. Esaterako, gaurko eta dokumentazioko *Bagaza* -> *Bagatza* (Arespalditza, Barakaldo), *Loizaga* -> *Loitzaga* (Berrikao, Galdames), eta *Idoibalza* -> *Idoibaltza* (Gordexola) arautzeko oztoporik ez dela irudi du, euskara galdu den alderdian. Era berean, Uxueko egungo *Andrebutxo* edo *Andremutxo* toponimoa *Andrebutzu* arautu daitekeela uste dugu, honelakoak Nafarroan behin baino gehiagotan azaltzeaz gainera etimologia garbia delako (*andre* + *butzu*). 1823ko *Andrebutchu* aldaera dokumentalak ere laguntza ematen digu erabakia hartzerakoan (Salaberri, 1994: 726-727).

Guztiarekin ere, ezin uka daiteke errestituzioak egiteak anitzetan nola-baiteko arriskua dakarrela berekin, erabateko segurtasuna izatea beti irispidean ez egonik. Adibidez, eta Uxueko toponimora itzuliaz, pentsa daiteke *butzu* gabe *butxu* txikigarria genuela, eta, beraz, *Andrebutxu* hobeki arautua legokeela. Alabaina, badakigu *Andrebutzu* izanik *Andrebutxu* bilakatu diren toki izenak bat baino gehiago direla, eta, bestalde, euskarazko /c/ fonema maiz /č/ bilakatu dela, euskara galtzarekin (Berangoko *Kurtze* euskal izena *Kurtxes* bilakatu da eraldunen ahotan, konparaziorako).

Errestituzioak egiten direnean ez da aise historian atzera noraino joan behar dugun jakitea; toponimoaren bilakaera eta egungo ebakera aztertu behar dira eta ditugun datuak ikusirik erabaki. Ormaetxeak (1996: 96), adibidez, Arrasateko egungo *Mendibitzu* bere horretan eman du, formarik zaharrena

Mendibeçua izanagatik ere, *Mendibicua* (*Mendibitzua*, seguru asko) 1650era-ko ageri delako.

1.5. Artikuluaren inguruan

Zenbait aldiz toponimo bera artikularekin eta artikulurik gabe aurkitzen dugu orain. Honelakoetan, bat hautatu behar eta, uste dugu artikuludun aldakia hobetsi behar dela, bi aldakiak egoera berean daudenean, euskara galdu den alderdi zabalean behintzat horrelako joera nabari baita erdaraz euskal toponimoak mugatzailerik gabe emateko, joera hau inola ere orokorra eta guztizkoa ez izan arren.

Adib.: *Erbeltzgeina* / *Ezbezgein* -> *Erbeltzgaina* (Aria, *NTEM-XXXIV*, 101).

Inoiz gertatzen da egungo aldakiak ez duela, irudiz, mugatzailerik, aurreko tradizio guztia -a-duna den bitartean. Kasu honetan uste dugu mugatzailedun aldaera hobetsi behar dela.

Adib.: *Otexon* orain / *Oteyça oyana* dokumentazio guztian, 1935 arte (Doneztebe, Iñigo, 1996: 139) -> *Oteitzaoiana* (*Oteitzako harrobia*, *Oteitzako landa* ere bada, ibid.).

1.6. Tokian tokiko ezaugarrien aldeko errespetua vs. euskara estandarra

Zaila da lekuan lekuko euskararen ezaugarriak toponimia txikiaren arauza burutzerakoan noraino begiratu behar diren zehaztea. Garbi dago, nolahi ere, ezaugarri horiek partikulazki espezifikoa dutela toki, ez hainbeste generikoetan. Hauetan, ikusi dugun bezala, garrantzi handia duten aldaerak baizik ez ditugu onartuko.

Espezifikoetan ere, alabaina, badira zalantza zeko diren puntu batzuk, ondoren ikusiko dugunetik ihes egiten dutenak, nolabait esan. Adibidez, *Bazterra*-ren moduko bat onartu behar da espezifikoa denean edo *Bazterra* idatzi behar dugu? Eta ehundaka aldiz kausitzen ditugun *Itxondo*, *Itxape* eta hauen tankerakoekin zer egin?

Nafarroako toponimia bilketa egin zenean horrelakoak ontzat hartu ziren; orain, ordea, beste iragazki bat behar dutela uste dugu. Iragazki hori dokumentazioa izan behar du; alegia, ikusi behar dugu forma aldatu horiek noiz hasi ziren ibiltzen, eta zer maiztasunekin ibili diren. Tokian tokiko euskararen berri ere jakin behar genuke, arautzea funtsez egiteko. Dokumentazioa azterturik aldakuntza azken mendean gertatu dela ikusten bada, ez dugu uste ontzat eman behar denik, baina bai XVIII. menderako azaltzen bada. Arazoa gure iritiz XIX. mendean dago: garai honetan hasi bazen erabiltzen, zer egin behar dugu?, zein aldaera hobetsi behar da? Ez dugu uste hor arau finko ezin

hautsizkorik ematerik baden. Konponbidea hau izan liteke: 1850eko eta 1850a aurreko aldaerak onetsi eta urte honetatik aurrerakoak ezetsi.

Puntu garrantzizkoa da hemen aintzat hartuak izateko zein gertakarik duten aski pisu erabakitzea. Oro har, esan daiteke euskara batua ezarri behar dela gidari eta bide-erakusle, eta horren arabera erabaki, nahiz, jakina, gauza bana diren hizkuntza estandarra eta toponimiaren arautzea. Ikus dezagun hau guztia polikiago.

1.6.1. Bokalismoa

1.6.1.1. Goiko bokalek eragindako $a > e$ hersketa

Goiko bokalek eragindako $a > e$ hersketa, esan bezala, ez da errespeta-tuko leku izena arautzerakoan. Hori bai, herri-ahoskeraren atalean egoki jasko da.

Hau zeharo argia da generikoen kasuan, zeren, izen arruntak izanik, euskara estandarren legepean baitaude, beste edozein hitz bezala, baina espezi-fikoetan ere ezartzekoa da.

Adib.: *Itolako zubia* idatziko dugu ez *Ittolako zubie* (Leitza, *NTEM-XL-VIII*, 94), *Berezia* ez *Berezie*, *Ortua*, ez *Ortue* (Basauri), *Itza*, ez *Itze* (Berango)...

Hau da irizpide nagusia, baina toponimoak bakarka eta banaka aztertu behar dira, eta hersketa zaharra dela ikusten bada onartu beste biderik ez dago, gure ustean. Cf. *Ibaras* (1700, 1705, 1708, 1893), *Ybarasbide* (1915), *Iberas* (1708), *Iberasbidea* (1705), *Iberas*, *Iberats*, *Iberasbide*, *Iberasko erreka* egun, *Uharte-Arakilen* (*NTEM-XII*, 144). Kasu honetan badirudi egokiena *Iberats* arautzea dela, baina Uitziko *Aldaia*-ren kasuan, berriz, eta nahiz eta 1723rako *Aldaie* dokumentatzen den, gogortxo egiten zaigu aldaera araututzat *Aldaie* proposatzea (*NTEM-XLV*, 186), beharbada *aldaia* toponimian ugaria eta gardena delako.

1.6.1.2. Hitz bukaerako $-a > -e$ aldaketa

Era berean, uste dugu Euskal Herriko mendebaldean eta beste leku batzuetan ahoz arrunta den amaierako $-a > -e$ aldaketa ez dela araututako izenetan onartu behar, eta jatorrizkoa hobetsi behar dela. Gogoan izan behar da aldaketa hau sarri berria dela, eta jatorrizko aldaerarekin aldizkatzen dela. Honen adibidea Bizkaiko *Autzagana* izan daiteke; hau *Auzagana* da dokumentazioan, eta Durangaldean oraindik ere $-a$ -rekin esaten da, ingururuetan *Autzagane* aldaera hedatu den arren. Gure irudiz ez dago dudarik kasu honetan *Autzagana* arautu behar dela.

Irizpide honi jarraikiz, Gornizko *Urezaranze* oraingo forma *Urezarantza* emango dugu, Leioako *Sabale Zabala* eta Algortako *Arene Arana*. Era bere-

an, Arrasateko dokumentazioko *Zabala*, *Zavala* aldakiak *Zabala* arautuko ditugu, nahiz 1857az geroztik *Zabale* dugun eta egun *Sabale* esaten den (Ormaetxea, 1996: 100).

Bestalde, Iparraldean frantsesaren eraginez gertatzen den *-a > -e* aldaketa ez da ontzat hartu behar, gure irudiz, euskararen barruko joera ez delako. Hau arrunt argia da *-a*-dun aldaera oraino bizirik dagoenean.

Adib.: *Bayonne* -> *Baiona* (Lapurdi), *Esquiule* -> *Eskiula*, (Biarno - Zuberoa); *Lasse* -> *Lasa* (Nafarroa Beherea).

Inoiz Bizkaian ere aurkitzen dugu, euskara galdu den alderdian, eta ez dakigu asimilazioz burutu den edo bestela.

Adib.: *Zariquete* (orain) / *Zariqueta* (dok.) (Zalla), *Zubiete* (orain) / *Zubieta* (dok.) (Gordexola).

Honelakoetan ere arautzea egitean *Zariketa*, *Zubieta* hobetsiko ditugu eskuarki, baina, edozein modutan, dokumentazioa ongi aztertu behar da.

1.6.1.3. Hitz bukaerako *-e* eta *-ea* direla-eta

Antzekoa da baina ez berdina euskal deklinabidearen eraginez garai batean *-a* artikuluekin bukatu arren egun *-ea*-z amaitzen diren toponimoen kasua. Honelakoetan aldaketa tradiziokoa baldin bada *-ea*-dun aldakia onartu behar dela uste dugu.

Adib.: *Bidezabalea* (Garralda, NTEM-XXXIV, 155), *Legarrea* (Ongotz, NTEM-XXXI, 169), *Txintzarrea* (Garaioa, NTEM-XXXIV, 142).

Zenbait aldiz *-ea*-ren ordez *-e* besterik ez dugu, *-a* erori baita. Kasu honetan joera nagusia *-ea* sartzea izan behar duela uste dugu, dokumentazioan ageri bada bederik.

Adib.: *Legarre* 1892an eta orain, baina *Legarrea* 1709an -> *Legarrea* (Akerreta, NTEM-XXXVI, 44), *Zubidenea* (1710), *Zubiéne* (orain) -> *Zubidenea* (Uitzi, NTEM-XLV, 202).

Honen paretsukoa da deklinatzean sortzen den *-e* paragokikoaren kasua: *Basañeze* (Leioa), *Landazabale* (Berango), *Mendibile* (Leioa), etab. Honelakoetan, *-e*-rik gabeko aldakia hobetsi behar dela dirudi.

1.6.1.4. Iparraldeko erdaren eraginez gertatzen den azken bokalaren erortzea

Gure irudiko beste hizkuntzen eraginez burutu den amaierako *-e* bokalaren erorketa baztertu eta izenak oso-osorik eman behar dira.

Adib.: *Bidarte*, ez *Bidart*; *Uharte*, ez *Uhart*...

Bestela, euskararen barrenean ere ohikoa izaten da, toponimian, azken bokalaren erortzea, *larre, luze...* eta bestetan (ikus *FHV*, 411).

Adibi.: *Larreluze* > *Larrelux* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 151).

Honelakoetan azken bokala errekuperatu behar dela uste dugu, baldin eta horren galtzea berria bada, berriztat bereziki XX. mendean gertatutakoa hartzen dugularik. Hortaz, eta Uharte-Arakilgo toponimoaren kasuan, *Larreluxe* normalizatuko dugu, *Larreluxe*-ren ondoan *Larluxeko zubia* ere baitugu. Bigarren osagaiaren palatalizazioaz ikus beherago.

Bestela, erorketa aspaldikoa denean gure iritziz ontzat hartu behar da, euskararen barrenean burutu baldin bada bederen.

1.6.1.5. Artikuluaren inguruan sortzen diren asimilazio eta disimilazio gertakariak

Artikuluaren inguruan sortzen diren asimilazio (*arrubia* -> *arrubii*), disimilazio (*errekea* -> *errekia*, *lepoa* -> *lepua...*) eta laburtze gertakariak (*arriak* -> *arrik*) gure ustez baztertu beharrekoak dira, euskara estandarrean egiten den bezala.

Adib.: *Apezeneko goiko euntzii* -> *Apezeneko goiko euntzea*, *Bordetako bidii* -> *Bordetako bidea* (Etxarri-Larraun, *NTEM-XLV*, 122, 123, 125), *Aierdiko arrik* -> *Aierdiko harriak* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 53), *Arbeleko arrue* -> *Arbeleko arroa* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 89).

1.6.1.6. Hitz hasierako *ai-* > *e-* bilakaeraz

Honelakoetan egokiena jatorrizko aldaera dela irudi du, baldin eta pauso hori euskararen galtze prozesuaren ondorioa bada.

Adib.: *Aizketa*, ez *Ezketa*; *Aiztondopea*, ez *Estondopea*.

Errestituzio hori egiteko, diptongodun aldakiek –edo dagozkien baliakide erromantzeek (*Junto a la Peña*, *Las Peñas...* kasu honetan)– ongi dokumentatuak beharko dute izan.

Aldakuntza aspaldikoa bada bidezkoena aldatutako izena hobestea dateke. Orobat herria euskalduna bada edo aldaketa gauzatu baino geroago erdaldunda bada.

1.6.1.7. Bokal protetikoaren galtzea dela-eta

Bokal protetikoa galdu denean errekuperatu egingo dugu.

Adib.: *Rotabidea* -> *Errotabidea*; *Rotasiar* -> *Errotaxar* (Lerga, Salaberri, 1994: 607-608).

Bokala protetikoa den ala ez dakigun kasuetan ere bokaldun aldaera hobetsiko da, baldin ongi dokumentatzen bada edo bizirik badago.

Adib.: *Repelaga* -> *Errepelaga* (Portugalete), *Róntegui* -> *Arrontegi* (Barakaldo).

1.6.1.8. Txistukari aurreko *e* > *i* hersketa

Goiago esan bezala, aldakuntza hau bakar-bakarrik espezifikoetan onartuko da, sekulan ez generikoetan. Espezifikoetan ere, ikusi den moduan, tradizio luzea izan beharko du gertakari honek onartua izan dadin.

Adib.: *Etxabere* > *Itxabere* (Iturenen 1549rako *Ichaberea* zegoen, Iñigo, 1996: 275), *Itxepe* (Erripa, *NTEM-L*, 135), *Itxondo* (Ziganda, *NTEM-L*, 62).

Lekuan lekuko euskararen ezaugarriak aintzat hartzea ere garrantzi handikoa da, puntu honetan.

1.6.1.9. Dardarkari anizkunak eragindako *e* > *a* irekitzea

Dardarkari azkar baten eraginez *e* ireki eta *a* bihurtu den toponimoetan bokal irekia bakarrik espezifikoetan gordeko da, ez generikoetan. Nolanahi ere, eta gainerakoetan bezala, aldaketa honen bilakaera diakronikoa eta euskalkiaren ezaugarriak oso kontuan izan behar ditugu, berreraiketa egin behar den ala ez erabakitzerakoan.

Adib.: *Baztarrotza* (Altsasu, *NTEM-IX*, 38), baina *Antonon bordako bazterrak* (Etxarte, Baztan, *NTEM-LII-2*, 104).

1.6.1.10. Azken bokalak irekitzeko joera, erdararen eraginez

Erdararen eraginez aldatutako amaierako bokalak jatorrizko erara bihurtu behar direla uste dugu. Bi kasu agertzen zaizkigu gailen historian zehar: *-u* > *-o* eta *-i* > *-e*.

Beraz, aldatutako bokala errekuiperatzeko *-o-z* amaitzen diren leku-izenak *-u-z* idatziko dira euskara galdu den tokietan, bokal hau ongi dokumentaturik badago, edo gaurko hizkuntzan oraindik erabiltzen den forma bada.

Adib.: *Arbulo* -> *Arbulu*, *Luco* -> *Luku* (Araba); *Basurto* -> *Basurtu*, *Deusto* -> *Deustu* (Bizkaia).

Zenbaitetan azentuaren ondoko *i* > *e* burutzen da, baita izenak atzean kontsonanteren bat duenean ere.

Adib.: *Berbikiz* > *Berbiqez* (Gordexola), *Muskiz* > *Musques* (Bizkaia).

Honelakoetan jatorrizko forma hobetsiko da, *-i*-duna alegia, hau ongi dokumentaturik edo bizirik dagoenean.

1.6.1.11. Bokal-elkarketa

Uste dugu elkarketan burutzen diren bokal-bategiteak ez direla desegin behar, eta idazkera etimologikoak saihestu behar direla, nahiz bi bokalak be-reiz dituen aldaera inoiz dokumentaturik agertzen zaigun.

Adib.: *Patroienuarrekoa* (Zeberio), ez *Patroienuarrekoa*; *Uribetxebarria* (Aretxabaleta), ez *Uribetxebarria*.

Hala ere, asimilazioa gauzatu ez denean bokal bi idatziko dira, tarteko marrarik erabili gabe.

Adib: *Aldapaaundi* (Eibar).

Bokalen elkarketa izen baten eta deklinabide morfema baten artean ger-tatu denean, elkarketa desegin egingo dugu.

Adib.: *Putrenarkaitze* -> *Putreen harkaitza* (Areso, *NTEM-XLVIII*, 45).

1.6.2. Kontsonantismoa

1.6.2.1. Aspirazioa

Askotan aspaldiko aspirazioaren galeraren ondorioz bokal-elkarketa ger-tatu da. Honelakoetan, forma laburtua onartuko dugu, berreraiketa etimologi-koetan sartu gabe; kasu askotan, gainera, ez dugu bestelakorik aurkituko.

Adib.: *Aranetandia* (Gartzain, 1727), ez (*H*)*araneta Handia*, *Larrezarra* (Done Bikendi Harana), ez *Larrezaharra*.

Hala eta guztiz ere, aspirazioa gorde denean, bokal artean zein kontso-nante ostean izan, errespetatu egingen dugu.

Adib.: *Eiarazaharra*, *Harroitako malda* (Luzaide, *NTEM-XXXV*, 180, 189), *Mehatze* (Larraine), baina *Arritokieta* (Zumaia), *Errotazarra* (Birgara), eta *Meatzerreka* (Arrasate).

Iparraldean kontsonante atzean agertzen den hasperenketa ere gordeko dugu, Zuberoako herri izendegian egin den bezala. Gogoratu behar dugu ahoskatze hori euskararen ezaugarria dela eta galera maiz frantsesaren eragina izan ohi dela.

Adib.: *Arhantsüse* (Altzai-Altzabeheti-Zunharreta).

Esan bezala, generikoetan *h* erabiliko da, euskara batuan izen hori *h-z* idazten denean.

Adib.: *Arango eia* -> *Arango hegia* (Goizueta, *NTEM-XLII*, 61).

Guztiarekin ere, euskara batutik urruntzen diren aldaeretan ez dugu *h*-rik idatziko:

Adib.: *Urragiko atxa* -> *Urragiko atxa* (Dima).

1.6.2.2. Txistukarien tratamendua

Puntu honetan irizpide nagusia tokian tokiko ezaugarriak eta ebakera errespetatzea da.

1.6.2.2.1. Ozen ondoko neutralizazioa

Euskaraz mintzatzen den alderdiko herriren batean *Arantsoro* esaten bada, Nafarroako Zubietan esaten den bezala (Iñigo, 1996: 347), edo *Arantzelai*, *Legartzelai*... Iturenen bezala (ibid., 218, 287), *Arantsoro*, *Arantzelai* eta *Legartzelai* emanen ditugu aldaera araututzat, baina beste batean *Aransolo* (Gamiz eta Munitibar), *Arzubia* (Mañaria), *Arzuri*, *Arzuriaga* edo *Asensiolearra* esaten bada (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 131), afrikaririk gabeko formak onartuko ditugu aldaera araututzat, eta *Aransolo*, *Arzubia*, *Arzuri*, *Arzuriaga* eta *Asensiolegarra* emango.

Hortaz, lekuan lekuko ezaugarriak hobetsiko dira, oro har, salbuespenen bat ere izan daitekeen arren.

Euskara galdu den alderdian, berriz, gogorra dirudi egun hainbat tokitan indarrean dauden neutralizazio arau horiek ezartzea, bereziki gerta daitekeelako neutralizazioa burutzen den herri batean toponimo guztietan ez burutzea (cf. *Arzuriaga* / *Arzeleta*, *Galtzarmuno*, *Zamartze*, Uharte-Arakilen, *NTEM-XII*, 131, 142 eta 168). Zuhurrena, beraz, euskara galdu den alderdian, dokumentatutako aldaera hobestea da, baldin eta afrikaria zegoela adierazten duen ezaugarriak ez badago.

Afrikaria hobesteko beste arrazoi bat etimologikoa da, hots, eskuarki afrikaria izaten duen hitz edo atzizki bat azaltzea, beti tentuz eta kontuz ibili behar bada ere, lekuan lekuko ezaugarri dialektalak zainduz eta gordez, ezagutzen ditugun heinean. Adibidez, Lergako dokumentazioko *Arañgeduia* *Arantzeduia* arautuko dugu (Salaberri, 1994: 585-586), Galipentzuko *Arrozendia*, *Arrezandia* desitxuratua *Ardantzeandia* emanen dugu, agirieta *Ardanzeandia* aintzat hartuz (ibid., 349), eta Arrasateko *Galarza* historikoa *Galarza* (Ormaetxea, 96: 57).

1.6.2.2.2. Herskari aurreko *z* > *s* pausoa eta beste

Euskara galdu den alderdian herskari ahoskabeen aurreko bizkarkaria hortz-hobietako bilakatu da maiz; honelakoetan, dokumentazioa argia bada, alderantzizko bilakaera abiaraziko dugu.

Adib.: *Aristegi* > *Ariztegi* (Irungo eta Oñatiko toponimoa).

Nolanahi ere, lekuan lekuko hizkeraren ezaugarriak –maiz hizkera galduarenak– oso kontuan edukitzekoak dira, anitz aldiz aipatu pauso hori euskararen barrenean gertatu ahal izan baita, Nafarroako alderdi zabal batean, konparaziorako³. $Z > s$ aldaketa gertatzen den tokiko euskal hizkeraren ezaugarriengatik burutzen denean ontzat hartu behar dela uste dugu, dokumentazioa ongi aztertu ondoan hala ere.

Mendebaldean arreta bereziz erreparatuko zaio t , k kontsonanteen aurrean gertatzen den $z > s$ pausoari. Hitz barruan agertzen denean duen antzinasunagatik edo onargarria bada ere –*Askartza* edo *Eskibel*-en esate baterako–, ez da onartuko elkarketan eta eratorpenean, eta *Amestia* gabe *Ameztia* arautuko da, *ametza* esaten denez gero.

Inoiz, herskari aurreko lekunean sabaiaurreko igurzkaria dugu orain – x idazten duguna, alegia–, nahiz eta dokumentazioan soinu hori islatzen duen grafema ez den behin ere azaltzen.

Adib.: *Asquin* (dokumentazioan) / *Axkin* (egun) (Doneztebe, 1996: 103).

Honelakoetan kontuan eduki behar da erdaraz euskarazko soinu hori emateko biderik ez zegoela, eta euskal txistukaria, testuinguru horretan, ez ohi dela asimilazioz gertatu. Beraz, eta Iñigok egin duen moduan, uste dugu aipatu toponimoaren kasuan *Axkin* arautu behar dela, ez *Askin*.

Beste batzuetan gerta daiteke gaur egunean $Ix-$ + *heskaria* izatea, seguru aski asimilazioz, baina dokumentazioan aspaldian ageri bada badirudi ontzat hartu beste biderik ez dagoela.

Adib.: *Ixtoki* (orain) / *Istoqui* (normalean dokumentazioan), *Iztoqui* (behin edo beste), *Ixtoquia* (1631n) (Elgorriaga, Iñigo, 1996: 186-187).

Honelakoetan *Ixtoki* arautu behar dela uste dugu.

1.6.2.2.3. Ahoskune aldaketa

Gerta daiteke dokumentazioan izen batek halako txistukaria izatea eta egun, berriz, bestelakoa aurkeztea. Honelakoetan toponimoaren etimologia edukiko dugu kontuan batetik, ahal denean, eta aldaketaren antzinasuna bestetik. Bi faktore hauek aintzat hartuz erabaki beharko dugu aldaera arautuaren nolakoa.

Adib.: *Anbulloix* -> *Anbulloz* (Doneztebe, Iñigo, 1996: 92, dokumentazioan beti –*oz* baitugu).

Bestalde, Euskal Herriko mendebaldeko toponimoetan $z > s$ eta $ts > tz$ aldakuntzak gertatu dira, bertako hizkeran bezala. Honelakoetan z eta ts erreperatu egingo ditugu.

(3) Ez Nafarroa osoan, ez eta arruntean –sistematikoki– ere; cf. Abaurregaineko *Izozta*, *Izoztabarrena* (NTEM-XXXIV, 44-45). Nafarroatik kanpo ere gauzatu da aldakuntza hori; ikus Mitxelena, 1988 [1956]: 570.

Adib.: *Kontzesiñue* -> *Kontzeziñoa*, *Serkosteta* -> *Zerkosteta*, *Sorginkantoi* -> *Zurginkantoi* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 63, 85, 86), *Muntzaatz* -> *Muntsaratz* (Abadiño), *Sabale* -> *Zabala* (Leioa).

Zenbait aldiz, izen batek espero ez genuen soinua du orain, eta soinua hori bera izan du azken mendeotan, dokumentazioak erakusten digunez.

Adib.: *Sarachaga* (Getxo, Plentzia) dokumentazioan, *Saratxaga* gaur egun.

Honelakoetan bistan da *Saratxaga* arautu behar dela.

1.6.2.2.4. Bikoiztasunak

Batzuetan bi ebakera desberdin izaten ditugu, bata bestea baino zaharragozat eman daitekeena, eta ez bakarrik agiri frogetan oinarriturik.

Adib.: *Iturrios* / *Iturriotz* -> *Iturriotz* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 61), *Latsagako zubia* / *Lasagako zubia* -> *Latsagako zubia*, *Latsagaldia* / *Lasagaldia* -> *Latsagaldea* (Ituren, Iñigo, 1996: 285).

Inoiz honelako bikoiztasunak espezifikoen eta generikoen arteko lotura -ko-ren bitartez egiteari zor zaiola dirudi, -tz + -ko normalean -zko bilakatzen baita.

Adib.: *Mugitz* / *Mugiz* eta *Mugizko azpia* / *Mugitzazpia*, *Mugizko borda*, *Mugizko erreka*, *Mugizkoa zokoa*-rekin batera (Doneztebe, Iñigo, 1996: 136).

Oraingoan ere bukaeran afrikaria duen aldaera hobetsi beharra dela uste dugu, *Mugitz* emandako adibidean.

1.6.2.2.5. Elkartuaren bigarren osagaiko txistukarien bustitzea

Ohikoa da, elkarketan, hizkera arruntean z- (edo tx-) dena x- edo tx- bilakatzea. Honelakoetan uste dugu gisakoena palatalizatutako aldaerak onartzea dela, baldin eta nolabaiteko tradizioa badute, edo, alderantziz, inolako lekukotasun dokumentalik ez badute.

Adib.: *Alorxarra* (Goizueta, Etxeberria, 1988: 92), *Errotatxar* (Setoain, NTEM-XXXVI, 169), *Errotaxar*, *Errekinxabal* (Zilbeti, NTEM-XXXV, 151), *Bordatxar*, *Bordaxuri*, *Larrexabal*, *Larrexar* (Ituren, Iñigo, 1996: 243-244, 284-285)

1.6.2.2.6. Atzizki zenbaitez

Txistukariz bukatzen diren edo beren baitan txistukaria duten atzizkiak direla-eta, esan daiteke denak ez direla berdin tratatu behar. Izan ere, eta lekuan lekuko ezaugarriak gordez betiere, zenbait atzizki afrikaria aurkezten dute gehienetan (-tza, -tze...), beste batzuek bikoiztasuna ohi duten bitartean:

-oz / -otz (eta -oze, -otze), -iz / -itz... Kasu honetan uste dugu ia beti afrikaria duten atzizkiak afrikariz eman behar direla, euskara galdu den alderdian (*Artaza, Artazea* -> *Artatza, Artatzea*, beraz), baina bikoiztasuna onartzen duten beste horietan igurzkaria eman behar dela, afrikariaren aztarnarik ez badago bederen: *Alboz* (Galipentzu), *Otrollos* (Uxue) (Salaberri, 1994: 143, 856). Hau are nabarmenagoa da Euskal Herriko mendebaldean.

1.6.2.3. Bustidura

Bustidura edo palatalizazioa biziki gertakari garrantzitsua dugu euskaraz. Mitxelenak dioenez (*FHV*, 179 eta hurr.) fonema palatalak euskalki guztietan azaltzeak bustidura gure hizkuntzan zaharra dela esan nahi du. Errenteriararren arabera, fonema adierazgarriena /t/ da euskaraz, hain zuzen ere horixe delako auzoko latin hizkuntzetan ezezagunena (ibid., 184-185).

Bustidura bi motatakoa izan daiteke euskaraz, asmilaziozkoa eta adierazgarria. Oñederrak dioenez (1990: 18) biak hots klase berari ezartzen zaizkio eta emaitza ere ber-bera da bi kasuetan, hots, bietan burutzen den aldakuntza berdina da, eta aldatzen dena bata edo bestea gertatzeko baldintzak dira, «asimilazioa katea fonikoko inguruneak sortutako bilakabide sintagmatikoa den bitartean, bustidura adierazgarria hizkuntzaren eremu semantikoari (*lato sensu*) baitagokio».

Toponimian ere bi bustidura motak aurkitzen ditugu:

A) Asimilazio bustidura

Adib.: *Ageriko iturrie* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 123), *Artzango kixulabea* (Goizueta, Etxeberria, 1988: 96), *Añongo iturriko txabala* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 60), *Iturrandi, Iturrita* (Goizueta, ibid., 103), *Kontzesiñoko iturrix*e (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 63).

B) Bustidura adierazgarria

Adib.: *Agiriko gainito, Arregiko labetto, Larreintto* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 123, 130, 151), *iturkoa* (Osteritz, Espotz, *NTEM-XXXVI*, 151 eta *NTEM-XXXII*, 68); *Menddikoa* (Hiriberri-Aezkoa, *NTEM-XXXIV*, 188).

Toponimoak arautzean uste dugu asimilazio bustidura ez dela errespetatu behar, euskara batuan egiten ez den bezala, toponimoari inolako ekarpenik egiten ez diolako. Bustidura adierazgarria, berriz, ontzat hartu beharra dela uste dugu, ñabardura semantikoa ezartzen baitio toki izenari. Hortaz, eta aipatu ditugun toponimoak honela eman beharko ditugu: *Agiriko iturria, Añongo iturriko zabala, Artzango kisulabea, Iturrandi, Iturrieta, Kontzeziñoko iturria* batetik, eta *Agiriko gainito, Arregiko labetto, Iturkoa, Larraintto, Menddikoa* bestetik.

Nolanahi ere, soinu palatal edo palatalizatua asimilazio bustiduraren ondorio dela garbi ez badago, bere horretan utzi behar dela uste dugu, espezifikoetan azaltzen denean, generikoak esan bezala izen arruntzat hartu eta hiztegi batuaren arabera eman behar baitira.

Adib.: *Aurkaxea* -> *Aurkaxea* (Abaurregaina, *NTEM-XXXIV*, 36); *Labatteko arrate* -> *Labatteko harrate* (Uhart-Arakil, *NTEM-XII*, 151).

Toki batzuetan bereizketa egiten dute, sabaikaldutako formak toponimiarako ibiliz eta jatorrizko formak gorputz atalak adierazteko gordez. Konparaziorako, Goizuetan *kaxkoa* beti mendiarena da, *kaskoa*, gizon nahiz emakumearena den bitartean, burua alegia. Honelakoetan generikoak hiztegi batuaren arabera arautu behar direla uste dugu.

Adib.: *Amonamozko kaxkoa* (Amonamotzeko ataka ere bada) -> *Amonamotzeko kaskoa* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 58)

1.6.2.3.1. Palatalizazioa zaharra denean

Sabaikarikuntza hori zaharra denean, onartu egingen da. Honela bada, adibidez, toki batean *Arizbakotxa* erabiltzen bada (Urzainki, *NTEM-XIV*, 165) *Arizbakotxa* arautuko dugu, egungo ohitura ortografikoetatik hurbilago legokeen *Arizbakoitza* eman gabe.

1.6.2.3.2. Txistukari txandakatzea

Txandaketak aurkitzen ditugunean (*zoko* / *txoko* / *xoko* eta *zabala* / *txabala* / *xabala*) aldaera bakoitzaren esanahia aztertu beharko da, oinarrizko hitza *zabala* den eta *txabala*, *xabala* ttikigarriak diren edo hirurek balio bera duten.

Baliteke mailaketa bat izatea, alegia, *txabala* forma neutroa izatea, *zabala* haundigarria eta *xabala* ttikigarria (cf. *goxo* / *gozo*, *txakurra* / *xakurra* / *zakurra*). Kasu honetan, eta antzekoetan, hiru generikoak gordeko ditugu. Normalean, hala ere, *txabal* eta *txoko* horiek ez diote inolako ñabardura semantikorik ekartzen toponimoari, eta, beraz, hiztegi batuko *zabal* eta *zoko* hobetsi beharko dira horrelakoetan.

1.6.2.3.3. Hitz bukaerako kontsonantearen bustitzea

Zenbait aldiz toponimoaren egungo ebakeran hondarreko kontsonantearen palatalizatze berria kausitzen dugu, aldaera arautuan ezin onar daitekeena.

Hortaz, honela arautuko ditugu toponimoak: *Axkibill*, *Aixkebill* -> *Axkibel* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 113-14); *Karraskañ* -> *Karraskain* (ibid., 138); *Uribarriñ*, *Uribarreñ* -> *Uribarren*; *Uriñ* -> *Urigoen* (ibid., 99).

1.6.2.3.4. Despalatalizazioa

Zenbait tokitan aldaera despalatalizatuak edo palatalizatugabeak aurkitzen ditugu toponimian (gai honetaz ikus Salaberri, 1998), espezifikoetan eta generikoetan.

Adib.: *Araniako gaztinaldia*, *Galbayoko gaina* (Urdiain, *NTEM-X*, 84, 95), *Gaztulugaina* (Urzainki, *NTEM-XIV*, 172), *Kainueta*, *Kukuilo* (Larragoa, *NTEM-XXII*, 199), *Txurrumusteilua* (Abaurregaina, *NTEM-XXXIV*, 51), *Zakugeina* (Aribe, *ibid.*, 120), *Zaldalarrina* (Narkue, *NTEM-XXIII*, 152)...

Honelakoetan uste dugu aldaki despalatalizatuak edo bustigabeak dauden daudenean atxiki behar direla, gertakari hau azken batean tokian tokiko hizkeraren ezaugarri inportantea delako. Espezifikoetan, beraz, dagoena ematen da, eta generikoetan ere bai, hizkuntza estandarrean ere beti *il*, *in* idazten delako. Hortaz, *Araneako gaztinaldia*, *Galbarioko gaina*, *Kainueta*, *Kukuilo*, *Txurrumusteilu*, *Zakugaina* eta *Zaldalarrina* arautuko ditugu.

1.6.2.3.5. Zenbait hizkeratako tarteko soinuak direla-eta

Mendebaldeko hizkeretan ohikoa da zenbait lekunetan [š] bat tartekatzea; toponimia ez da erregela horretatik kanpo gelditzen.

Adib.: *Aixertza*, *Bostitturrixeta*, *Lamiñen zelaixe*...

Hauek gure irudiko *Aiertza*, *Bostiturrieta*, *Laminen zelaia*... arautu behar dira (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 105, 142).

Beste batzuetan bestelako soinuak dira tartekatzen direnak, inoiz beste zerbaiten arradiza diratekeenak.

Adib.: *Arratatako iturriya*, *Arriyako soruak*, *Kamiyotxikiya*, *Kurutzatako arriya* (Urdiain, *NTEM-X*, 85, 99).

Honelakoak *Arratetako iturria*, *Arriagako soroak*, *Kamiotxikia* eta *Kurutzetako harria* –edo *Gurutzetako harria* dokumentazioaren arabera– arautu behar dira, gure iritzian.

1.6.2.3.6. Toponimoaren lehen osagaia izen arrunta denean

Sail honetan sartzen dira aipatu dugun Arrasateko *Lamiñen zelaixe*-ren edo Uharte-Arakilgo *Jentillen lezie*-ren modukoak (*NTEM-XII*, 148), gure us-tez *Laminen zelaia* eta *Jentilen lezea* arautu beharrak direnak, esan bezala lehen elementu hori izen arruntzat har daitekeelako, ezpezifikoa ez izanik. Nolanahi ere, eta ikusten den moduan, bertakoa den *lamina* aldaera begiratzen dugu Arrasateko toponimoaren kasuan, *lamia* sartzeko partez.

1.6.2.4. Herskariak

Uste dugu espezifikoetan tokian tokiko herskariak hobetsi behar direla, baina ez generikoetan; hauetan hizkuntza estandarreko aldaerak onartuko dira eskuarki, hauek bertako formatik sobera urruti gelditzen ez diren kasuetan behintzat.

Adib.: *Butzuandia* (Galar, Jimeno, 1987-b, 385); *Dorrezar* (Eriete, 1727, Inventarios del Reino de Navarra); *Gisutzea* (Galipentzu, Salaberri, 1994: 406); *Kisulabe* (Ilurdotz, NTEM-XXXVI, 103-104); *Mateopozu* (Barakaldo); *Pozueta* (Amurrio, Muxika); *Putzuetako gaina* (Goizueta, NTEM- XLVII, 128); *Torrezar* (Zeberio), *Zamudiotorre* (Zamudio).

Erronkari aldean, *n* eta *l*-ren ondoko herskari ahoskabeak ahoskabe atxikiko ditugu (cf. toponimia nagusiko *Bidankoze*, *Erronkari*, *Zaraitzukoak* diren eta hizkuntza batuaren arauekin adosago dauden *Bidangoze* edo *Errongari*-ren ordez).

Adib.: *Ekialte* (Uztarroze, NTEM-XIV, 197), *Zaltua* (Burgi, Garde..., ibid., 52, 78).

Zenbait aldiz gertatzen da toponimo bera hasieran *b*- nahiz *m*- duela azaltzen zaigula gaur egun.

Adib.: *Bonua* / *Munoa* (Elgorriaga, Iñigo, 1996: 175), *Bengolea* / *Mingolea* (Barakaldo).

Honelakoetan zaharrena *b*-dun aldakia izan ohi da, baina, zernahi ere den, dokumentazioa aztertu behar dela uste dugu, toponimoa egokiro arautu ahal izateko. Elgorriagako izenaren kasuan *b*-dun aldakia da jaun eta jabe 1563tik 1853ra, eta gaur egun oraino bizirik dago, ikusi bezala. Hortaz, kasu honetan *Bunoa* arautu behar dela uste dugu, Iñigok (ibid.) egiten duen bezala.

Barakaldon *Bengolea* XX. mendea arte erabili da, gaur egun *Mingolea* esaten bada ere; kasu honetan garbi dago *Bengolea* hobetsi behar dela, oraingo aldakia itxuragabetuxe baitago.

Beste batzuetan *b*- / *p*- aldizkatzea aurkitzen dugu; honelakoetan ere zaharrena lehena izaten da, baina, nolahi ere, dokumentazioa ongi aztertu behar da.

Adib.: *Bagalde* / *Pagalda* -> *Bagalde* (Ituren, Iñigo, 234-235), *Bizarrenia* / *Pizarrenia* -> *Bizarronea* (Ituren, ibid., 514).

Anitzetan *k*- aurkitzen dugu gaur egun jatorrizko *g*-ren ordez. Honelakoetan ikusi behar dugu ahoskabetzea euskaraz mintzatzen zen bitartean gauzatu zen, herrian euskara galdu bada, eta dokumentazioak zer dioskun, edozein kasutan. Gure iritzian ez da arazorik izan behar *k*-dun aldaera horiek onartzeko, tradizio handia badute, baina, adibidez, Usetxiko egungo *Kaete*, *Kaeteos-*

pel eta *Kaetezelai* toponimoak *Garate*, *Garateospel* eta *Garatezelai* arautu behar direla uste dugu, *Garate*, *Garatekoa* behintzat 1892a arte dokumentatzen direlako (*NTEM-XXXVI*, 187).

Zalantza gehiago ditugu Iturengo oraingo *Kastinia* etxe izenarekin, *k-dun* aldaera 1773rako ageri baita, gero bakarra delarik. Lehen, halere, 1564tik 1773ra arte beti *g-dugu*, eta, bestalde, *Kastinia* bere horrela ezin dugu arautu (ikus beherago, etxe izenei eskaini atala), eta aukeraketa *Kastenea*-ren eta *Gaztene*a-ren artean egin behar dela dirudi. Iñigok (1996: 522) lehenaren alde egin zuen, eta *Gaztene*a arautu.

1.7. BESTELAKO KASUISTIKA

1.7.1. Jatorriz erlatibozko perpausak ziren toponimoak

Koldo Mitxelena (1988: 615) euskaraz *Satznamen*-ak urriak direla dio, onomastika semitikoan azaltzen direnen tankerakoak behintzat, eta *verb phrases* deitzen dituenak aurkitzea biziki zaila dela gaineratzen du, ohikoa zuen ironiarekin. Irakasle errenteriarraren arabera aditz sintagmatik hurbilen daudenak, euskaraz, erlatibo toponimoak dira.

J. Gorrotxategik ere maisuari jarraikiz perpaus toponimoak euskaraz gutxi direla dio (1995: 755), baina guk uste dugu baieztapen biribil hau asko ñabartu behar dela, eta, jakina, ezin dela horrelakorik esan aipatu ditugun erlatibo toponimo horietaz, Nafarroan, esaterako, franko aurkitzen ditugulako. Mitxelena berak ematen du Bizkaiko adibide bat (*Hila datzan zelaia*, egungo grafiarekin idatziaz; 1988: 616), eta Lopez de Gereñuren Arabako hainbat lekuko aztertzen edo aipatzen. Gipuzkoan seguru aski gutxiago izango dira, baina *Haurra galdu zan harria*-ren tankerakoak badira (Urnieta aldean; L. M. Zaldua, lan argitaragabea). Honela dio J. Gorrotxategik:

“Lastly, there is also minor evidence of toponyms that are *Satznamen*; the oldest would appear to be *Onbaçendu*, name of a lair of animals, ‘if it so pleaseth you’, which has its origin in a feudal institution in Navarre called *onbaçendu auaria*, or ‘supper of complaisance’”.

Erlatibo toponimoak ugariak dira dokumentazioan, eta ugariak dira egungo toponimia bizian ere(4). Historikoetan Zudairiko *Oihalak ikuzten dirana*, Etsaingo *Emazte hil zena*, Bakaikuko *Abade Altsasua erori zaneko zuloa* (Salaberri, 1996, 225-226. Ikus, baita ere, Segurola, 1987, García de Albizu, 1994 eta Salaberri, 1998) eta Asteraingo *Urdeak etziten direnekoan* (Jimeno Jurío,

(4) Gaztelaniaz *donde*-ren bidez egiten dira euskaraz *dena, dana...* duten erlatibo toponimo horiek, Mitxelena zehaztu bezala (1988: 617), edo, bestela, *en el sitio de*-ren bidez (*Donde murió el mozo, En el sitio del pomal...*). Ikus, honetaz, Salaberri, 1992: 640. Toponimia frantsean Sporeren arabera (1980: 26) lau erlatibo toponimo besterik ez dira: *La Pierre-Qui-Vire, Le Pont-Qui-Penche, Sauve-Qui-Peut* et *La Truie-Qui-File*.

1987: 142 = *Donde duerme el ganado de cerda*, ibid., 191) aipa daitezke, eta bizietan Uharte-Arakilgo *Txaraka txikitzen dena* eta *Ura sortzen dena* (NTEM-XII, 165, 166), Dorraoko *Andres bota zaneko barga*, Lizarragako *Diegoren karroa bota zana*, Unanuko *Ahuntzak jeixten diraneko zelaia* eta *Gatza ematen dakion iturria* (NTEM-VII, 30, 51, 65, 77), Gaintzako *Arrizabaldenea*, *Illaradenea* (NTEM-XLVI, 73, 78)...e.a.

Hauetaz gainera, badira, Euskal Herriko sortaldean, *dena*, *dana* izan beharrez *bait-* menderagailuaren bidez osaturik daudenak: *Elorria baita* (Leotz), *Gurbea baita*, *Lizarra baita* (Lusarreta), *Gurutzea baita* (Ituren, Iñigo, 1996: 263)...

Erlatibo toponimo hauen kasuan hiru arazo aurkezten zaizkigu, gutxieneko kontuan: osagaiak batera (toponimoak baitira) ala bereiz (perpauak diren heinean) eman behar diren lehenik, eta tokian tokiko hizkeraren ezaugarriak zer neurritan begiratu behar diren gero. Bigarren honekin lotua dago hirugarrena: lekuan lekuko ezaugarri dialektalak errespetatu behar badira, noraino erabili behar ditugu hizkuntza estandarren ortografia arauak?

Lehenari dagokionez, Nafarroan egindako toponimia bilketan (Jimeno Jurío, 1990) izenak bi elementuz osaturik zeudenean loturik idatziko zirela esaten zen, baina hiru edo gehiago bazituen bereiz emanen zirela. Orain, eta datu gehiago azterturik, uste dugu toponimoaren osagaiak eskuarki bereiz eman behar direla.

Adib.: *Azpila dana* (Galbarra) *Maiatza dana*, *Usoak edaten duena* (San Martin-Ameskoa) (Salaberri, 1996: 226); *Andrea galdu zan erreka* (Altsasu, NTEM-IX, 33); *Ezpela baita* (Meotz, Salaberri, 1996: 226)...

Alabaina, toponimoari beste elementuren bat eransten zaionean, izan dadin hau inesiboaren aztarna datekeena, izan dadin deklinabide hondarkiren bat, izenaren osagaiak batera idatzi behar direla uste dugu, generikoa salbu: *Erleabaitako alorra* (Xaberri), *Udareabaitakoa* (Idoate, Salaberri, 1996: 226); *Ganbeladaneko zuloa* (Unanu, NTEM-VIII, 76); *Aldapadanea* (Arbizu, NTEM-XII, 64(5)).

Bigarren arazoa dela eta, orain arte aipatutako toki izenetan ikus daitekeen bezala, uste dugu tokian tokiko ezaugarri nagusiak errespetatu behar direla, baina ez guztiak, eta maiz errestituzioak egin behar direla. Esate baterako, Arbizuko *Aldapadanea* bertan *Aldapania*, *Aldapaania* ebakitzen da (NTEM-XII, 64), Unanuko *Ganbeladaneko zuloa* *Ganbelaneko txuloa*, eta herri bereko *Gatza ematen dakion iturria*, berriz, *Gatza ematen dakiyon iturriya* (NTEM- VIII, 77).

(5) Guk hemen proposatzen dugun arautzea eta aipatzen ditugun Nafarroako lan horietan egiten dena ez datoz beti bat.

Hirugarren arazoa dela-eta, berriz, egokia iruditzen zaigu Unanuko *Auntzek jeixten diraneko txelaya* perpaus toponimoa *Ahuntzak jeixten diraneko zelaia* arautzea, eta Urnieta aldeko *Aurra galdu zan arriya* leku izena *Haurra galdu zan harria* ematea.

Euskal toponimiako *Satznamen*-ak ez dira azaldutakora mugatzen, hurrengo atalean ikusten den bezala, eta, beraz, Mitxelenak eta Gorrotxategik egindako baieztapenak franko ñabartu eta murriztu behar direla uste dugu.

1.7.2. Bestelako perpaus toponimoak

Esanak esan, honelakoak ugariak izan dira gure artean lehen, eta ugariak dira oraindik ere, zenbait eskualdetan behintzat:

Adib: *Bustazurico erreca pasatu eta berala* (Asterain, Jimeno, 1987: 66), *Elordira atracen guirela* (ibid., 85), *Ezpelequeta atracendela eunce buruam* (ibid., 95), *Gares bidea larrea atracendella* (ibid., 102); *Guarda labeguia larrea pasatu eta berala* (ibid., 105), *Perdona bidea uncea dachiola* (ibid., 128); *Garidario* (Zirauki, 1576, PR-Zirauki, 3. k.)... Erdaraz ere bada horrelakoren bat; cf. Asartako 1689ko *Manacaracoles* (PR-Artabia, 5. k.).

Honelakoak, gure irudiz, egungo grafiarekin idatzi behar dira, baina eskuarki morfologia aldatu gabe, honela: *Bustazuriko erreka pasatu eta berala*, *Elordira atratzen girela*, *Ezpeleketa atratzen dela euntze buruan*, *Garesbide-alarrea atratzen dela*, *Guardalabegia larrea pasatu eta berala*, *Garidario*... baina *Perdonabidea euntzea datxiola*.

Oraiko perpaus toponimoen artean *Erreekekoa* (hau ere erlatibo perpausa da, nahiz ez ohikoa, toponimian), *Errezatzeko bargagaña* (Lizarraga-Ergoiena, *NTEM-VIII*, 52) eta *Txara botatzeko gaña* (ibid., 61) aipa daitezke. Honelakoak, bizirik baitaude, hizkuntza batuaren arabera arautuko ditugu, espezifikoei dagokien idazkera berezia atxikiz, beharra denean. Hortaz, honela emango ditugu: *Errerikakoa*, *Errezatzeko bargagaina* eta *Txara botatzeko gaina*.

1.7.3. Errepikapenak

Euskara galdu den herrietan maiz aski agertzen dira *Fuente de Iturrizarra*, *Monte de Mendiandia*... eta antzeko toponimoak. Horrelakoetan generikoa (*Fuente*, *Monte*...) ez idazten saiatuko gara, aipatu dermio horrek iturria edo mendia bakarra izendatzen duenean. Jokabide bera izan behar dela uste dugu errepikapena euskaraz gausatzen denean.

Alabaina, *Iturrizarra*-k iturriaz gain ingurua ere izendatzen badu, *Fuente de Iturrizarra / Iturrizarreko iturria* idatziko dugu iturria bera aipatzeko, *Iturrizarra* aurkintzatik bereizteko.

1.7.4. Leku-izen hibridoak

Euskara galdu den alderdian inoizka izen hibridoak agertzen dira, hau da, osagaietako bat euskarazkoa eta bestea, askotan itzulia, erdarazkoa dituzten toponimoak.

Adib.: *Mendigrande, Montebisker* (Saratsate, *NTEM-XIII*, 229).

Kasu honetan dokumentaziorik ez badago egungo aldakiak onartuko ditugu, inoiz ukituren bat egindakoan.

Adib.: *Mendigrande, Montebizkar*.

Agiriak aztertuta itzulpena duela gutxi egina dela ikusten badugu, berriz, jatorrizko aldaerara itzuliko da, hau da, *Mendiandi* eta *Mendibizkar*-en tanke-rakoetara.

Beste kasu batzuetan zaila da jakitea toponimo hibrido baten aurrean gauden ala ez, euskarak, ezaguna denez, hainbat mailegu hartu baititu inguruko hizkuntzetatik.

Adib.: *Sotoaldea* (dok., Elo, Larraintzar, Tabar...), *Saguesgo sotoaldea* (Gazolatz, 1549, PR-Lizarrá, 2. k.).

Honelakoetan *Zaldualdea* edo *Saguesgo zaldualdea* aukeratuko ditugu, baldin eta maiztasun handikoak eta aski zaharrak izateak hibridazioa hizkuntz ordezkapen prozesuaren fruitu dela ziurtatzen badigute. Bestela, diren-direnean emango ditugu toponimo horiek, beharrezkoak diren aldaketa grafikoak eginda.

1.7.5. Plural erromantzea eta artikularen eranstea

Hizkuntz ordezkapenaren ondorioz gertatu ohi da gaztelaniazko *-s* pluralgilearen eransketa; honelakoetan uste dugu toponimoak beren lehengo gardentasunera itzularazi behar direla, aldakuntza euskaraz kanpoko arrazoiei zor zaielako.

Adib.: *Arrartetás* -> *Arrarteta* (Hiriberri-Aezkoa, *NTEM-XXXIV*, 177), *Arriagas* -> *Arriaga* (Erandio); *Ataketás* -> *Ataketa* (Abaurregaina, ibid., 36).

Hauek, inoiz, euskara galdu gabe ere aurkitzen ditugu han-hemen, gaztelaniaren eragin handiagatik, antza duenez. Hau da, esaterako, Getariako *Meagas*-en kasua, zein *Meaga* arautu behar baita, bistan denez.

Honelakoak bereziki argiak dira jatorrizko aldakia oraindik bizirik dagoenean, edo bizirik dauden aldaketatik aise ondorioztatzen denean.

Adib.: *Etzangios* / *Etxangio* -> *Etzangio* (Abaurrepea, *NTEM-XXXIV*, 79), *Legarrea* / *Legarreás* -> *Legarrea* (Olaitz, *NTEM-L*, 155).

Batzuetan bakarrik erdarazko pluralgilea duen aldakia dugu orain, eta dokumentazioan forma osoa.

Adib.: *Legarra* (1892), *Los Legarres* (orain) (Saragueta, *NTEM-XXXII*, 119).

Kasu honetan uste dugu egungo aldakiaren etorkia den *Legarra*-ra itzul daitekeela.

Gerta daiteke, hala ere, erdaraz baizik mintzatzen ez den herri batean *Los Bustines*, *Los Zugarros* bezalako toponimoak berriak izatea, hots, *bustin*, *zugarro* euskaratikako maileguen gainean eraikiak izatea. Horrelakoetan toponimoa dagoen-dagoenean onartu behar dela uste dugu.

1.7.6. Hagiotoponimoak

Euskal grafiaz idatziko dira euskal erara ebakitzen badira, euskarazko izen jatorrak badira, edo posposizio edo izen euskaldun batez horniturik badaude.

Posposiziorik ez dutenean bereiz idatziko ditugu:

Adib. *San Roke*, *San Bizente*, *Jaun Done Petri*, *Done Salvatore*.

Salbuespen bakarrak *Santi*-dun izenak izango dira; honelakoetan bi osagaiak batean idatziko ditugu, usadio zahar eta hedatuenerari segituz.

Adib.: *Santimami* (Erandio, Leioa).

Posposizio batez –toponimian arruntak diren *aldea*, *gibela*, *gaina* eta *gisakoak*, *alegia*– lagundurik daudenean, ordea, loturik idatziko ditugu.

Adib: *Sangregoriozelaia* (Zumarraga), *Sanpelaioaldea* (Ermua).

Hagiotoponimo hauek berriak baldin badira –sarri Franco jeneralaren garaian eraikitako etxadiak ohi dira– eta izen zaharra berreskuratzetik ez baldin bada, itzuli egingo dira, ahal delarik inguruko edo euskalki bereko hagiotoponimoak eredu hartuta. *San Juan*-en kasuan azken urteotan Hegoaldean zabaldu den *Donibane* ere erabil daiteke (Iruñea, Pasaia, Santurtzi).

1.7.7. Etxe izenak

Gure egunotan normalean aldaera itxuraldatua erabiltzen da, baina etxe jabeek (eta ingurukoek ere sarri) ongi jakin ohi dute etxearen jatorrizko izena zein den.

Arlo honetan uste dugu oinarritzko irizpidea oikonimoaren oinarrian dagoena begiratzea eta osorik ematea izan behar duela, ezinbestekoa baita etxe izen horietan dagoen gure kultur ondarea atxikitzea. Beraz, egungo *Elorga* (Leioa); *Gontxea* (Azpilkueta, *NTEM-LII-1*, 176), *Koyania* (Ituren, Iñigo,

1996: 523), *Paliorraa* (Munitibar), *Uxar* (Dima) oikonimoak *Elorriaga*, *Goienetxea*, *Goiaranea*, *Pagoleorragea*, *Urizar* arautu behar ditugula uste dugu, hots, dokumentazioko aldaeretara hurbildu behar ditugula.

Inoiz atzera samar joan beharko dugu denboran, izenaren itxuraldatzea zaharra izan daitekeelako; honetan bat gatz Iñigoren (1996: 523) jokabidearekin Iturengo *Kuxinxenia Gizonxurienea* normalizatzen duenean (*Gizonxurienea* ere arautu liteke, agian). Adibide honetan ikusten den bezala, oinarriaren gardentasuna atzera ekartzen da, baina ez atzizkia, hau hastean *-arena* izanagatik. Beste adibide bat: *Xixternia* -> *Sastrenea* (Ituren, Iñigo, 1996: 542-543), ez bukaera osorik duen dokumentazioko *Sastrearena*, baina ezta oraingo aldaki itxuraldatua ere.

Oikonimoetan ehundaka aldiz azaltzen den jabego genitiboaren hondarki hori dela-eta bi hitz esan nahi genituzke. Izan ere, eta aipatu den bezala, egun *-arena* aldaki osoa erabiltzen ez denean ez dugu uste etorkizko aldaki horretara itzuli behar denik, bilakaera euskararen barrenekoa izan bada behinik behin. Nolanahi ere, azken bi mendeotan joera handia ikusten da toki batzuetan amaierako *-a*, jatorriz artikulua dena, kentzeko. Goizuetan, adibidez, XVIII-XIX. mendeetan *-a* hori oikonimo gehienetan agertzen zen (ikus Hermandorena, 1978), baina gaur egun izen gehienek galdu dute.

Adib.: *Zabaletarena* (XVII. mendean) > *Zabaletaenea* (XVIII, XIX. mendeetan) > *Zabàltené* egun; *Lubienea* (XVIII-XIX. mendeetan) > *Lùine* (orain); *Franciscochonea* (XVIII, XIX. mendeetan) > *Frantxiskené* (orain); *Pasqual Luzeanea* (XVIII. mendean) > *Pascual-acenea* (XIX.ean) > *Paskòl-tzené* (orain)!. Artikulua, halere, ez da kasu guztietan galdu: *Barbàreneá*, *Goikòtxeá*...

Pasaian ere (Elortegi, 1992), Goizuetan bezala, bi soluzioak ditugu, hau da, azken bokala galdu duen *-ene* aldaera eta soinu hori gorde duen *-enea*, azken hau modu batera baino gehiagotara ebakitzen delarik: *Azkuene* ([áskwenè] Pasai San Pedron) / *Frantxesenea* ([fřančesëniá], [fřančesëné], [fřančesëaenià], Pasai San Pedron eta Pasai Donibanen). Dokumentazioan ikusten den gisara, jatorrizkoa *-(a)rena* da (*Martiskorena*, 1759), XVII. mendearen azken laurdenerako *-enea* bilakatzen hasia zena (*Kalatrásenea*, 1680, *Maisuenea*, 1757, *Mariederrenea*, Pasai Donibane, 1796). *-Ene* aldaera XIX. mendearen bigarren erditik aurrera hasten da agertzen: *Mokorriene* (1863), *Goikoene* (1873), nahiz mende honetan eta hurrengoan *-enea* aise arruntagoa den: *Peloyo(e)nea* (1871), *Txartikuenea* (1940), *Kolejialenea* (1948).

Gure irudiz bukaeran *-a* duten aldakiak hobetsi behar dira, beti ere dokumentazioa kontuan hartuz eta lekuan lekuko ohiturak errespetatuz. Bestalde, azken urteotan somatzen den *-enea* orokortzeko joera ez zaigu egokia iruditzen, esan bezala, tokian tokiko usadioaren arabera jokatu behar dela uste dugulako.

Oikonimoetan agertzen den kasu marka ez da kontuan izango, oikonimoa historikoa baldin bada eta ondorioz gurera hitz bakar batean heldu bada. Esan nahi dugu etxe izenaren bi osagai nagusiak ez ditugula bereiz emango. Hau biziki argia da etxe izen hori deitura bihurtu denean.

Adib.: *Errekakoetxea* (Arantzazu, Bilbo, Dima, Gorliz).

Beren baitan *-ko* + *etxea* duten oikonimoak beti loturik idatzi behar dira.

Adib.: *Aldakoetxea*, *Bengoetxea*, *Berekoetxea*, *Garaikoetxea*, *Goikoetxea*, *Indakoetxea*...

Etxe izena + *leku genitiboa* + *generikoa* segida agertzen denean, oikonimoaren bukaerako *-a* artikulutzat hartzen dugu, *-bereziki* etxe izenak jatorriz jabego genitiboaren bukaera zena daramanean- eta *-ko* ezartzean kentzen dugu.

Adib.: *Enekonea* / *Enekoneko ardiborda* (Irurita, *NTEM-LII-2*, 154); *Gartxitonea* / *Gartxitoneko borda* (Lekaroz, *ibid.*, 183); *Oztarenea* / *Oztareneko borda*, *Oztareneko iturria*, *Oztareneko ongarritegia* (Arizkun, *NTEM-LII-1*, 138).

Etxe izena + *posposizioa* segida dagoenean ere jatorrizko *-a* desagertu egiten da, *etxea* / *etxe azpian* sintagmetan bezala.

Adib.: *Apezenea* / *Apezeneberria* (Ituren, Iñigo, 1996: 507-508), *Juango-rriena* / *Juangorrienezpia* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 79).

Bestela ere maiz oikonimoaren amaiera kendu-utzizkoa izan ohi da.

Adib.: *Andalorrea* / *Andalorreko borda* (Gartzain, *NTEM-LII-2*, 124), *Gamioa* / *Gamioko borda* (Almandoz, *NTEM-LII-1*, 43), *Goienetxea* / *Goienetxekeo borda* (Azpilkueta, *NTEM-LII-1*, 176).

Nafarroako Malerrekan, Bortzerrietan eta Lapurdin etxe izen askok *-baita* «atzizkia» eramaten dute; honelakoetan *-baita* hori aurreko izenari lotua idatzi behar dela uste dugu.

Adib.: *Agerrabaita*, *Aldakosbaita*, *Amurusbaita*, *Apezabaita*, *Arbelaitzbaita*, *Arotxabaita*, *Arrosabaita*, *Barrenetxebaita*, *Bonbabaita*, *Doloresbaita*, *Donsimonbaita*... (Bera, OBIE, 1989).

Kasu honetan ere *oikonimoa* + *-ko* + *generikoa* segida ageri bada hondarreko osagai hori bereiz eman behar dela uste dugu.

Adib.: *Sastrebaitako borda* (Bera, OBIE, 1989).

Etxe izen berriak idazterakoan gorago azaldu diren irizpideei jarraikiko gatzazkie: *Goizargi* (ez *Goiz-argi*), *Txokoberri* (ez *Txoko-berri*), baina *Gure nahia*, *Gure ametsa*.

1.7.8. Herri izenak mikrotoponimian

Toponimia txikian maiz herri izenak aurkitzen ditugu, normalean jende-ak orain ebakitzen dituen moduan. Honelakoetan uste dugu Euskaltzaindiak proposatzen dituen aldaera arautuak erabili behar direla.

Adib.: *Arbazuko bidea* -> *Arruazuko bidea* (Lakuntza, *NTEM-XII*, 95), *Iyenteko barga*, *Irinteko barga* -> *Irañetako barga* (Irañeta, ibid., 180), *Leitzelarrea* -> *Leitzalarrea* (Leitza, *NTEM-XLVIII*, 105)...

1.7.9. Itzulpenak

Gure iritziz leku izenak normalean ez dira itzuli behar, nahiz eta, dokumentazioa ezagutzen duenak ongi dakien bezala, euskarazko izenak asko eta askotan erdarara irauli diren. Hau, eskuarki, eskribauaren ezagutza eta hizkuntz gaitasunaren mende egoten zen.

Zernahi gisaz, izena berria baldin bada ez dugu uste arazorik dagoenik euskaraz ere ezartzeko. Era berean, egoki ikusten dugu itzulpena gure egunetara heldu den izena antzinako euskal izen baten itzulpena denean. Hau biziki ohikoa da hirietan, non euskal izenak nekez mantendu diren. Horrelakoetan, euskal onomastikari eta tokian tokiko ohiturari segituz egingo dira itzulpenak; Iruñearen kasuan, konparazione, bidezko dirudi dokumentazioko eta gaurko datuak azterturik *dinda* sartzea, lanbide zaharren izenak daramatzaten karrika izenetan (*Dindatxikia*, *Urradinda*, *Zakudinda*...).

Izenak erdarara bihurtzea, alabaina, ez da bakarrik hiri barruan gertatzen, maiz itzultzeko joera hau toponimia txikian ere aurkitzen baitugu.

Adib.: *Arbaltzaga* / *Peñas Negras* (Galdames), *Urgozo* / *Las delicias* (Barrakaldo).

Honelakoetan nola jokatu behar den jakiteko itzulpena noizdanikakoa den aztertu beharra dago, bai eta ere leku bakoitzeko egoera soziolinguistikoa nolakoa den. Zernahi gisaz, uste dugu euskaldunok jatorrizko gure toponimo horiek errekeratzeke eskubidea badugula, baina, hori bai, egun zabalduago dagoen erdarazko itzulpena gutxietsi gabe. Konponbidea honelakoetan biak ematean dagoke.

1.7.10. Letra larrien eta xeheen erabilera

Itxuraz axola handirik ez duen gaia da hau, baina gero praktikan egunero arazo bihurtu ohi da. Irizpidea txosten honetan aipatu diren toponimoak arautzeko erabili dena izan behar duela uste dugu, hots, izen espezifikoa letra larri hasi behar da eta letra xehez jarraitu, eta generikoa letra xehez hasi eta letra xehez amaitu behar da

Adib.: *Lertxundiko erreka* (Ituren, Iñigo, 1996: 288).

Bibliografia

- Baldinger, K. (1986): "Etimología popular y onomástica", *Lexis*, 10, 15-30.
- Elortegi, A. (1992): *Pasaiako Toponimia*, Onomasticon Vasconiae, 8, Euskaltzaindia, Bilbao.
- Etxeberria, L. F. (1988): "Goizuetako toponimia, Artikutzakoa ezik", *FLV*, 51, 77-118.
- Euskaltzaindia (1978): *Bergara-ko biltzar ondoko erabakiak*, *Euskera* aldizkariaren separata, Bilbo.
- García de Albizu, B. (1994): "La sufijación «-dana» y «dirana» en la Toponimia de Ameskua", *FLV*, 65, 136-166.
- Gorrotxategi, J. (1995): "Basque Names", in *Namenforschung / Name Studies / Les noms propres*, Walter de Gruyter, Berlin-New York.
- Hernandorena, V. (1978): "Goizueta'ko Etxe eta Baserri'en izenak: 1616 urtetik-1925'ño", *CEEN*, 10, 75-90.
- Iñigo, A. (1996): *Toponómica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Jimeno Jurío, J. M^a (1987): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Onomasticon Vasconiae, 1, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jimeno Jurío, J. M^a (1987-b): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Onomasticon Vasconiae, 2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jimeno Jurío, J. M^a. (1989): *Toponimia histórico-etnográfica de Tafalla*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Jimeno Jurío, J. M^a. (1989-b): "Arrizabalaga (Campanas) y Artederreta (Carrascal)", *FLV*, 53, 75-85.
- Jimeno Jurío, J.M^a (1989-c): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Onomasticon Vasconiae, 6, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jimeno Jurío, J. M^a (1990): *Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza (Bigarren Argitarapena. Zuzenduta eta Osatuta) / Navarra. Toponimia y Cartografía (Segunda Edición. Corregida y Aumentada)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea. Lanean zehar NTEM akronimoaz aipatzen dira bilduma honetako lanak, bakoitzari dagokion zenbakia ondoan ezarrit.
- Jimeno Jurío, J. M^a & Salaberri, P. (1994): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Onomasticon Vasconiae, 12, Bilbo.
- Mitxelena, K. (1988 [1956]): "Introducción fonética a la onomástica vasca", aurrena *Emerita*, XXIV, 167-186-n karrikaratua. Orain urte batzuk *Sobre Historia de la Lengua Vasca*-n ikusi zuen berriz argia (J. Lakarrak argi-

taratua, Maria Teresa Etxenikeren eta Blanka Urgellen laguntzarekin), «*Julio Urkixo*» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak 10, Donostia, 555-580. Guk azken argitalpen honetatik egiten ditugu aipuak.

Mitxelena, K. (1988 [1985]): “Algunos nombres de Contrasta”, lehendabiziko aldiz *ASJU*, XIX, 595-602-n argitaratua; azken urteotan *Sobre Historia de la Lengua Vasca*-n ikusi du berriz argia, 614-619. Guk azken argitalpen honetatik egiten ditugu aipuak.

Mitxelena, K. (1990): *Fonética Histórica Vasca (FHV)*, «*Julio Urkixo*» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak, IV, Donostia, laugarren berrargitalpena.

OBIE (1989): *Bera lurraldeko mapa*.

Oñederra, M. L. (1990): *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

Ormaetxea, J.L. (1996): *Arrasateko Toponimia*, *Onomasticon Vasconiae*, 15, Euskaltzaindia, Bilbo.

Salaberri Zaratiegi, P. (1992): “Toponimia, dialektologiaren ikerbide”, *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, Iker 7, 619-645.

Salaberri Zaratiegi, P. (1994): *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, *Onomasticon Vasconiae*, 11, Euskaltzaindia, Bilbo.

Salaberri Zaratiegi, P. (1996): “Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez”, *FLV*, 72, 223-234.

Salaberri Zaratiegi, P. (1998): “Arabako mugako nafar hizkeren inguruan”, *Nafarroako Hizkerak*, I. Camino arg., UEU, Bilbo, 49-87.

Segurola, I. (1987): “Notas de toponimia amescoana”, *ASJU*, 20:1, 265-275.

Spore, Palle (1980): *Etudes toponymiques*, bi ale, Odenseko Unibertsitatea.

Terrado, J. (1999): *Metodología de la investigación en toponimia*, Zaragoza.

Trapero, M. (1995): *Para una teoría lingüística de la toponimia (Estudios de toponimia canaria)*, Universidad de las Palmas de Gran Canaria, Gran Canaria.

Ugarte, J. L. (1998): *Urretxu eta Zumarragako Toponimia*, *Onomasticon Vasconiae*, 18, Euskaltzaindia, Bilbo.

Zaldúa, L.M.: *Urumeako Zilegimendietako Toponimia*, lan argitaragabea.

Barakaldoko datuak Mikel Gorrotxategi eta Goio Bañales egiten ari diren *Toponimia de Barakaldo y Alonsotegi* lanetik hartu ditugu; Sopuerta eta Galdamesko datuak, berriz, laster kaleratuko den Mikel Gorrotxategiren “En-

kartazioetako toponimiaz: Artzentaies, Galdames eta Sopuserta” lanetik atereak dira, in *Actas de las II Jornadas de Onomástica / II. Onomastika Jardunaldien Agiriak*, Onomasticon Vasconiae 17, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000, 531-605.

Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri, Onomastika batzordeko kideek, Mañariko Udaletxean, 1999-X-22an aurkeztua eta, Iruñeko ordezkarietan, 2000-II-18an Onomastika batzordeak onartua.